

Herritarren ahotsak

Transmisioa ikasgelan

Euskara eta Literatura



Gida didaktikoa

DBH 1 eta 2

Badihardugu Elkarte

Otaola hiribidea, 1
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75



Edukia:

SARRERA	3
HELBURUAK	6
EDUKIAK.....	11
EDUKI MULTZOAK.....	11
GAI NAGUSIAK	19
NOIZ ETA NOLA ERABILI.....	28
PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK	33
1. Gaia: Euskalkiak: ezin elkar ulertu? (Euskararen aberastasuna)	33
2. Gaia: Euskararen erabilera aisialdian (Euskara eta aisia)	40
3. Gaia: Hizkuntza-jarrerak (Euskara eta aisia)	48
4. Gaia: Euskaraz bizi nahi dut! (Euskara eta aisia)	53
5. Gaia: Sare sozialak eta euskara (Euskara eta aisia)	59
6. Gaia: Irakurzaletasuna eta euskara (Euskara eta aisia)	66
7. Gaia: Euskara eta zentsura (Euskararen historia).....	71
8. Gaia: Elbira Zipitria (Euskararen historia)	77
9. Gaia: Maria Dolores Agirre (Euskararen historia)	83
10. Gaia: Sehaska-kantak (Ahozko literatura)	90
11. Gaia: Nola kontatu ipuin bat? (Ahozko literatura)	96
12. Gaia: Elkarrizketa motak (Ahozko testu-generoak).....	110
ESPAZIOEN ANTOLAKETA	117
DENBORALIZAZIOA	118
Materialaren egileak.....	120
Bibliografia.....	121

SARRERA

Gure ikasmaterialak Euskal Herriko Ahotsak www.ahotsak.eus proiektuan bildutako ahozko ondarea dauka oinarri gisa. Euskarazko testigantzak, adinekoenak zein gazteenak. Gure asmoa jakintzen eta kontatzeko moduen transmisioa egitea da, ahozko jardunaren bitartez. Eta, bidez batez, belaunaldien arteko hurbilketa egitea, lehenaldia eta oraina lotuz.



“Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua 2015ean sortu zen, EIMA 2.0. egitasmoari esker. **Herritartasunerako Hezkuntza** irakasgairako egin genituen lehen proposamen pedagogikoak:



Ondoren, **Euskara eta Literatura** ikasgaiari heldu genion, eta 2016tik hona maila guztietarako materiala prestatu dugu:



Lanketa guztiak <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> webgunean daude erabilgarri, euren gida didaktikoekin (proiektuetan, EIMA 2.0. aukeratuta).

Esku artean duzuna **DBHko 1. eta 2. maila** dagokiena da. **12 proposamen pedagogiko** prestatu ditugu Euskara eta Literatura ikasgaien ahozko ondarea jorratzeko. Bost ataletan banatuta daude:

- Euskararen aberastasuna
- Euskara eta aisia
- Euskararen historia
- Ahozko literatura
- Ahozko testu-generoak

Zer du berezitik gure ikasmaterialak? Ahozketasuna dauka abiapuntu eta helburu gisa. Curriculumean ahozketasunari garrantzi handia ematen bazaio ere, askotan idatzizkoa gailentzen da ikastetxeetan. Ahozketasuna lantzeko ereduak falta dira, eta guk baditugu. Ahozketasunak naturaltasuna esan nahi du, adierazkortasuna, eta agerikoa da gaztetxo askok premia hori dutela, erdarara jotzeko duten joera ikusita. Hizkera formala eta informala, biak lantzeko proposamenak egin ditugu, euskarari freskotasuna eta adierazkortasuna emateko, sormena lantzeko, eta, azken batean, euskararen ahozko erabilera sustatzeko.



Umorea eta irudimena dira horretarako erabiliko ditugun tresnetako batzuk. Besteak beste, euskalkien balioa nabarmen geratzen da, ikasleen nortasun kolektiboa eta individuala garatzeko garaian. Identitateari dagokionez, esan dezakegu ikasmaterialak curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko balio duela, euskal mundu-ikuskeraren erakusgarri den heinean.

Herriaren jakinduria, jakintza kolektiboa. Hori da beste ezaugarrietako bat. Eskolako liburuetan presentzia gutxi izaten duen herritarren ahotsa da gure ikasmaterialaren ardatza; herri baten izatearen lekukotasuna, azken batean.

Duela gutxi arte, transmisioa etxeko sukaldean egiten zen. Baina azken belaunaldietan ez, bizimodua goitik behera aldatu baita: teknologia berrien aroan murgilduta bizi gara. Guk ere transmisioa egiteko modu berriak aurkitu behar ditugu. Gure ikasmaterialaren helburua horixe da: herri jakinduria ikastetxeetara eramatea, teknologia berriak erabilia eta modu erakargarrian.

Hala, batetik, gure aurrekoen bizipenak, adineko jendearenak, ezagutzera emango ditugu. Izan ere, gizartearen barne-egitura, balioak, bizimodua, arazoak, pentsaera... gizartearen bilakaeraren ondorio dira; nondik gatozen jakin behar dugu, nora goazen jakiteko. Bestetik, beharrezkoa da gaur egungo gazteen ahotsa ere aintzat hartzea, orain haiek direlako lemazain bihurtu behar dutenak, eta ikasleak gazteekin gehiago identifikatzen direlako. Belaunaldien arteko zubi-lana egingo dugu. Soka beraren katebegiak gara denok.

Ikasmaterial osagarri digitala da gurea, curriculum aintzat hartuta sortua; ikasgelan erabiltzeko eta irakasleari begira egina, ez beste nonbaitetik hartua eta egokitua. Irakasleen autonomia errespetatzen du, irakasleek nahierara erabil eta molda ditzaketen proposamenak egiten baititugu. Lizentzia librearekin banatzen da eta Euskal Herriko ikastetxe guztietan erabiltzeko modukoa da, interes orokorrekoa. Halaber, erabiltzeko erraza da, intuitiboa, bilaketa mailaren, ikasgaiaren eta gaiaren arabera

egin daitekeelako: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>. Diseinu erakargarria du. Eta berdintasuna aintzat hartzen du, bai gaiak aukeratzean, bai proposamen pedagogikoetan.



Sare sozialak eta euskara

euskaraz
bizi
nahi dut

Euskaraz bizi nahi dut



Sehaska-kantak



Irakurzaletasuna eta euskara



Hizkuntza-jarrerak



Elbira Zipitria andereñoa



Maria Dolores Agirre eta antzerkia



Elkarrizketa motak



Nola kontatu ipuin bat?

HELBURUAK

Gure ikasmateriala DBHko 1. eta 2. mailako irakasle eta ikasleei dago zuzendua, eta Euskara eta Literatura irakasgaiarekin dago lotuta.

EIMA 2.0. deialdiaren baldintzei dagokienez, proiektu honek honako baldintzak betetzen ditu:

- Euskara hutsean sortutako ikasmaterial digitala da (4.1. artikulua).
- Creative Commons lizentziapean argitaratzen da (3.1. artikulua).
- Arlo hauetara zuzenduta dago (2. artikulua):
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako material osagarria da.
 - Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko material osagarria da.
 - Aniztasunari erantzuten dio.

Proiektu honen helburua ahozketasuna lantzea da. Berebiziko altxorra daukagu jasota Ahotsak.eus proiektuan. Testigantza horiek euskarazkoak eta ahozkoak dira guztiak. Zer esaten duten eta nola: edukiz nahiz formaz dira baliagarriak. Gure egiten dugu eskola curriculumetan (175/2007 eta 23/2009 Dekretuak) egoera ezberdinetan komunikatzen ikasteari ematen zaion garrantzia, eta baita ere ahozko hizkuntzari buruz esplizituki esaten dena: hizkuntzen irakaskuntzaren helburu gisa izan behar duen lekua eta beste materien garapenerako tresna moduan duen garrantzia.

Ahozketasuna lantzeko irakasgai guztiak izan daitezke egokiak. Hori bai, *Euskara eta Literatura* iruditzen zaigu aproposena, ahozketasuna hizkuntzaren irakaskuntzaren barnean dagoelako. Ahozketasuna ez da behar beste lantzen, gure ustez, eta hori izango da gure ekarpen nagusietako bat. Ikasleei giltza batzuk ematea egoera komunikatibo bakoitzari dagokion testuinguruaz jabetzeko; lagunarteko hizkera ez formaletan moldatzeko estrategiez jabetzeko, besteak beste.

Ahozketasuna lantzeko aukeraz gainera, gure lehengo eta oraingo gizartea barrutik ezagutzeko hainbat giltza ematen dituzte adinekoek. Eta haien testigantzek hausnarketarako bidea zabaltzeko balio dute, ikasleak euren kabuz ondorio batzuetara hel daitezten, talde-lanaren laguntzaz. Nagusien hitzei balioa emateko, denen iritzia entzuteko eta errespetuzko harremanak lantzeko ere balioko du.

Ikasleek errealitatea kritikoki epaitzen laguntzen duten balio-printzipioak landuko dituzte. Eta hori era autonomoan, arrazoizkoan eta elkarrizketaren bidez egin dezaten



balio dute gure bideoek eta proposatuko ditugun jarduerak. Gure ikasmaterialak pentsarazteko balio du.

Legezko Xedapenen testuinguruan, curriculumean jasotako helburuekin bat dator gure ikasmateriala, bai helburu orokorrekin eta baita irakasgaiko helburu zehatzekin ere. Helburu orokorrei dagokienez, Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak betetzen ditu (175/2007 Dekretua):

- a) Ikasleak prestatzea pertsona helduen bizitzari ekiteko; gizarteko herritar aktibo izateko; eta izadiaren zaintzarekiko eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa duten pertsonak izateko.*
- b) Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak eskuratu ditzaten lortzea.*
- c) Ikasleekin sentsibilizazio-lana egitea eta haiek gaitzea bizitzan zehar etengabe ikasteko gai izan daitezen.*

Oinarrizko hezkuntzaren helburu orokorrak, 175/2007 Dekretuan zehazten direnak, ere helburutzat hartu ditugu: arduraz bizitzen ikastea, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea eta egiten eta ekiten ikastea. Helburu horietako azpialat guztiak izan ditugu kontuan, eta bereziki hauek:

“Ikasten eta ikasten pentsatzen ikastea” ataletik:

a) Modu koherentean eta kritikoan pentsatzen ikastea, eta ohiturak hartzea diziplina, esfortzua, erantzukizuna eta lan eta ikasketa indibidualerako eta taldekorako teknikak lantzeko, hala, ikasketarekin lotutako eginkizunak eraginkortasunez egiteko eta norberaren garapenerako bitartekoak eskuratzeko. Horrek guztiak bultzatu egin behar du nork bere buruan konfiantza izatea eta ikaslearen sen kritikoa, ekimena, jakin-mina, interesa eta sormena.

“Komunikatzen ikastea” ataletik:

a) Zuzen, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea euskarazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeke, errealitatea interpretatzeko eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Literatura irakurtzeari, lantzeari eta aztertzeari ekitea. Hizkuntzetarako Europako Marko Komuneke B2 maila izango da esparru horretako erreferentzia.

c) Ikaslearen bizi-inguruneke errealitate soziolinguistikoa ikuspegi kritikoz interpretatzea, eta hizkuntzak sortzeko eta garatzeko eta hizkuntzen arteko harremanak finkatzeko faktoreak zein diren jakitea. Hizkuntzen aniztasuna errespetatzea eta aniztasun hori herrien eta gizabanakoen aberastasun eta eskubidetzat hartzea, interesa eta errespetuzko jarrerak izateko eskubide horren erabilerarekiko eta hizkuntza-normalizazioko prozesuekiko.

d) Informazioko teknologiak eta komunikabideak erabiltzea ikasteko eta jakintza berriak eskuratzeko prozesuan, betiere, hartutako eta sortutako mezuekiko ikuspegi kritikoa izanda.

f) Hitzeko hizkuntza eta arte-, matematika- eta zientzia-hizkuntzak interpretatzea eta modu aktiboan eta kritikoan erabiltzea, komunikazio-ekintza zehatzak egiteko, azalpenak eta arrazoiak emateko, eta norberaren, gizartearen eta izadiaren errealitatea egoki irudikatzeko.

“Elkarrekin bizitzen ikastea” ataletik:

f) Euskal herritartzat izatea norberaren burua, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea euskal hizkuntza eta kulturari edota norberak berezko eta erreferentziazko dituenek; hala, ikasleak, identitate anizkunei erreparatuta, nortasun propio bat eraiki behar du, modu inklusiboan. Horrek guztiak erreferentziazko marko komun bat eraikitze bide eman behar du, pertsonen arteko diferentziak errespetatu eta bizikidetzaz erraztuko duena.

g) Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarriko alderdiak eta arte- eta kultura-ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, eta xede horiek betetzea gainerako kultura eta gizarteekiko. Kultura eta sozietateen funtzionamenduko mekanismoak eta balioak aztertzea, batik bat, herritarren eskubideei eta betebeharrei dagozkienak, haiek ikuspegi kritikoz aintzat hartzeko eta haiekiko iritzi eta irizpide pertsonalak izateko.

Bidenabar, UNESCOren «XXI. menderako ikastea» programak etorkizuneko hezkuntzarako finkatutako lau oinarriak gure egin ditugu: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea.

Helburu didaktiko zehatzagoei begira, esan DBHn «Euskara eta Literatura» irakasgaiak hainbat gaitasun lortzea duela helburu. Horietako asko gure ikasmaterialaren bidez lor daitezkeela uste dugu.

Honakoak lirateke:

1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.
2. Ahoz eta idatziz, esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.

3. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskara eraginkortasunez erabiltzeko eta hizkuntza-normalizazioarekiko konpromiso aktiboa garatzeko.
4. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa balioetsiko da.
5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.
6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, erlazioan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.
7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.
8. Norberaren ikaskuntza prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio estrategiak transferitzeko; horrela, ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko norberak duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute.
9. Literatura-generoen oinarrizko arauak eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura-asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.
10. Literatura-ondarea balioestea, norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzen; horrela, euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturetako eta literatura unibertsaleko ereduak obrak irakurriz eta aztertuz, norberaren kultura identitatea eraiki ahal izango da.
11. Ereduzko testuak eta norberak hautatutako testuak irakurriz eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuta, literatura-obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentiberatasun estetikoa garatzeko.



Bukatzeko, helburuetan aipatzekoa da hauxe ere: ahozko testu-generoak lantzeko orain arte egin diren proposamen didaktiko garrantzizkoenetan (de Pietro & Dolz, 1997; Dolz & Schneuwly, 1998...) ahozko hizkuntza formalari eman zaio lehentasuna.

Alabaina, agerikoa da eskolatik kanpo gaztettoek lagunarteko egoera informaletan gaztelaniaz hitz egiteko joera handia dutela (Soziolinguistikako Klusterraren kale-ikerketak); eta hor ditugu gazte-hizkeraren erabilerari buruz (Eizmendi, 2015) edo euskararen adierazkortasun ezari buruzko gogoetak ere (Esnaola, 2000). Horrenbestez, esan dezakegu gazteen mintzaira-jarduera ez formal horiek gelara eramatea ere komeni dela, gaztettoek lagunarteko hizkera ez formaletan moldatzeko estrategiak eskuratu ditzaten.

EDUKIAK

Euskara eta Literatura irakasgairako DBHko 1. eta 2. mailetarako zehaztutako eduki guztiekin dator bat gure ikasmateriala, eta bereziki segidan datozenekin¹:



EDUKI MULTZOAK

1. eduki multzoa: Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Ahozko komunikazioa da gure arretagunea. Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak nahiko baztertuta egon dira eskola-sisteman. Eta beharrezkoa da sistema horrek duen garrantzia azpimarratzea, bai ikasleen komunikazio-gaitasuna oso-osorik gauzatzeko, bai ikasgelan harremanetan jarduteko eta esanahia negoziatzeko; horiek, hain zuzen, funtsezkoak dira eremu guztietan ezagutzaren eraikitze-prozesuan eragiten duten hizkuntza-trebetasun kognitiboak garatzeko. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa dela eta, eskolak euskararen ahozko komunikazioa indartu behar du, gizartean duen erabilera areagotzeko eta normalizazio-prozesua bultzatzeko.

- (1) Ahozko testuak aztertzeke jarraibideak erabiltzea.
- Harreman trukeak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio estrategia erabiltzea.
- Harreman trukea ikasketa prozesuak erregulatzeko baliabide gisa balioestea.
- Eragin-trukea norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko aintzat hartzea.

¹ Ezer jartzen ez duenean, bi mailetarako balio du; bestela, zehaztuta dator: 1 edo 2

- Gizarte harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.
- Elkarrizketetan parte hartzea, testuak ulertzeko nahiz idazteko, eta era guztietako komunikazio prozesuei buruz hausnartzeko.
- Landutako ahozko testuen genero ezaugarri nagusiak ezagutzea.
- Elkarrekintzetan, solaskideen hizkuntza-erabilerak errespetatzea.
- Ahozko elkarrizketetan, euskararen erabilerarekiko jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Ahozko ekoizpenak zuzentzeko eta ebaluatzeko, autoebaluazio eta autozuzenketa estrategiak erabiltzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz adierazpenak egiteko interesa agertzea; (2) gainera, elkarrizketa zuzentzen duten arauak errespetatuko dira eta gizarteko komunikazio-arauak aplikatuko dira.
- Curriculumaren hainbat zeregini bereziki dagozkien komunikazio egoeratan parte hartze aktiboa izatea, (2) bereziki ikaskuntza-jarduerak antolatzeke eta kudeatzeko, informazioa bilatzeko eta horren ekarpenak egiteko, argibideak eskatzeko, taldean lankidetzan aritzeko eta egindako jardueren azken emaitza adierazteko.
- Ikasleen eguneroko bizitzatik edo esperientzietatik hurbil dauden ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio garrantzitsuenak ulertzea. (2) Arreta berezia jarriko da narrazioetan, egitura errazeko azalpenetan, argibideetan, arrazoiaketa sinpleetan eta elkarrizketetan.
- Entzute prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzea; (2) apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...
- (1) Ahozko testuen komunikazio egoerak identifikatu ondoren, edukia planifikatzea eta esperientziarekin lotutako gertaerak ahoz kontatzea. (2) Landutako ahozko testuen egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- (2) Jarduera akademikoarekin lotutako gaiak edo gertaera interesgarriak buruzkoak ahoz azaltzea.
- (2) Komunikabideetatik hartutako informazioa azaltzea, eta komunikabide horietan gertaerak aurkezteko moduan dauden desberdintasunak agerian jartzea.
- (2) Landutako estrategiak erabiltzea, testua hartzailearentzat ulergarria izan dadin.

- (2) Igorlearen asmoa zein den jakitea, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
- (2) Eragin-trukea norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko aintzat hartzea.
- (2) Ahozko mezuen komunikazio-egitura antzematea: adierazitako ideien ordena eta hierarkia.
- (2) Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- (2) Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- (2) Ikasleentzat interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa ordenatuta eta argi aurkeztea.
- (2) Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko.
- (2) Landutako ahozko testuen ulermena eta sorkuntza arautzeko estrategiak jakinaren gainean erabiltzea.
- (2) Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabilerekiko jarrera kritikoak bultzatzea.
- (2) Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera izatea.

2. eduki multzoa: Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

Ahazkotasuna da gure ikasmaterialekin lantzen duguna, baina, horretarako, idaztea eta irakurtzea ezinbestean egin beharreko lanak dira. Izan ere, ahozko testuak aurrez idatzitakoak izaten dira sarritan. Egitura eta ezaugarri jakinak izaten dituzte, eta aurrez prestatu behar dira. Gainera, edozein gairi buruz dokumentatzeko, beharrezkoa da irakurtzea eta hainbat iturritatik edatea, apunteak hartzea, eskemak egitea... Idatzizko testuak ondo ezagutzea komeni da, ahozkoak kontrolatzeko; elkarren osagarriak dira. Idatzizko komunikazioa zehar-lerroa da gure ikasmaterialean. Horrenbestez, Curriculumeko 2. eduki multzoko atal guztiak izango ditugu kontuan. Hori bai, idatzitakoa gero ahoz emateko garaiari berebiziko arreta jarrita:

- Ahots goraz irakurtzea eta, zeregin horretan, komunikazio egoera eta funtzio horretarako egokiak diren ahoskera, intonazioa eta erritmoa erabiltzea; 2.

mailan, horrez gainera, ikus-entzunezko baliabideak erabili ahal izango dira (ahotsa erregistratzeko).

3. eduki multzoa: Literatura-hezkuntza



Ahozko literatura lantzeko proposamenak ere egiten ditugu gure ikasmaterialean: sehaska kantak, ipuinak, bertsoak...

- Ahozko literatura balioestea belaunaldien arteko kultura transmititzeko eta norberaren identitate kulturala eraikitzeke bitarteko gisa.
- Literatura-ekoizpenekiko sentsibilitate estetikoa garatzea, elementu sortzaileak eta estilistikoak balioetsiz.
- Irakurle gisa, autonomia eta literaturarekiko estimua garatzea gozamen iturri eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko bide gisa.
- (1) Bertsoak asmo literarioz eta ikasgelan landutakoen oinarritzko egiturak baliatuz planifikatzea eta ekoiztea.
- (1) Literatura-testura hurbiltzean hainbat alderdiren inguruan hausnartzea: gaia, garaia, pertsonaiak, baliabide estilistikoak...
- (1) Ahozko literatura-testuak aztertzea, eta labur kontatzea.
- (1) Ahozko literaturaren osagaiak eta ezaugarriak ezagutzea, eta testuetan identifikatzea.
- (1) Poemak eta bertsoak elkarrekin irakurtzea, entzutea eta errezipitazioa, erritmoaren oinarritzko elementuei, neurkerari eta figura semantiko garrantzitsuenei erreparatuz. (2) Irakurketen iruzkin bateratuak egitea, olerkiak errezipitazioa eta bertsoak kantatzea, eta, zeregin horretan, hizkuntzaren balio sinbolikoak eta baliabide erretoriko garrantzitsuenak ezagutzea.
- (1) Antzerki lan laburrak edo zatiak, irakurtzea, testuaren ezaugarriak erreparatuta. (2) Antzerki-lanak edo zatiak iruzkinak eginez eta dramatizatuz irakurtzea, eta antzerki-testuaren forma ezaugarriak ezagutzea.
- (1) Kontakizun laburrak iruzkinak gehituz eta elkarrekin irakurtzea eta entzutea, gure kulturako eta beste kultura batzuetako mitoak eta kondairak barne, literatura kontakizunaren elementuei eta haien funtzionaltasunari erreparatuz. (2) Ipuinak eta kontakizun laburrak iruzkinak eginez eta espresioa landuz

irakurtzea, eta, gero, istorio-elementuak, hasiera formak, garapen kronologikoa eta amaiera alderatzea eta egiaztatzea.

- (1) Euskarri desberdinetan, ikus-entzunezkoak eta euskarri digitalak barne, aurkeztutako literatura-lanak aztertu, alderatu eta gogoan erabiltzea. (2) Informazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea, nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko.
- (2) Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira.
- (2) Planifikatu ondoren, irakurritako testuari dagokionez norberak izan dituen bizipenei buruzko balorazioak egitea.
- (2) Planifikatzeko, testualizatzeko eta berrikusteko prozedurak bultzatzea, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.



4. eduki maltzoa: Hizkuntzari buruzko hausnarketa

Hizkuntzari buruz hausnartzea oso garrantzitsua da komunikazioaren ezaugarriez jabetzeko eta testuinguru bakoitzean ondo komunikatzen ikasteko.

- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Ahozko testuetan aditz denbora eta aspektua zuzen erabiltzea.
- Komunikazio eraginkorra bideratzeko, fonetika arauak duten garrantzia kontuan hartzea.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia ulertzea eta erabiltzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.
- Hizkuntzen artean egiten diren kalko eta transferentzia okerrak antzematea eta zuzentzea.
- (1) Ahozko ekoizpenak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak laguntzaz erabiltzea.
- Mezuetak eremu lexikoak eta semantikoak identifikatzea eta hitzak sortzeko mekanismoak ezagutzea. (2) Hortaz gainera, lexiko berriaren, hitzak sortzeko

mekanismoen (deribazioa eta hitz-elkarketa) eta esaeren ezagutza eta erabilera handitzea.

- (1) Hizkuntza elementu eta funtzionamendu arau berezkoak dituen sistematizat hartzea. (2) Eta elementu bakoitzak komunikazioan duen funtzioa bereiztea.
- (1) Ahozko komunikazioaren eta idatzizko komunikazioaren arteko desberdintasun garrantzitsuak ezagutzea (testuingurukoak eta formari dagozkionak). (2) Eta lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun garrantzitsuak behatzea, eta gizarteko komunikazio-arauek eta hizkuntza prosodikoak nahiz hitz gabeko mintzairak ahozko hizkuntza eraginkorrean duten garrantzia kontuan hartzea.
- (1) Testu mota garrantzitsuenen ezaugarri nagusiak ezagutzea. (2) Narrazio-diskurtsoen, elkarrizketen, azalpen-diskurtsoen (deskripzio- eta sekuentzia-egitura dutenak) eta arrazoiketa errazen ezaugarriak ezagutzea, eta kausan nahiz ondorioetan arreta berezia jartzea.
- (1) Zenbait testu lokailu identifikatzea eta erabiltzea, eta, bereziki, lekua, denbora eta erreferentea mantentzeko prozedurekin lotutakoak. (2) Zenbait testu-lokailu (bereziki, lekuari, denborari, antolakuntzari, kausari eta ondorioei dagozkienak) eta barne-erreferentziako zenbait mekanismo (esaterako, testuko aditzaren eta izenaren arteko koherentzia nahiz erreferenteak mantentzeko prozedurak) antzematea eta zuhertasunez erabiltzea; horrez gainera, arreta berezia jarriko zaio lexiko-ordezkapenari (sinonimoak eta hiperonimoak), bai eta pronominalen (hirugarren pertsonaren izenordainak) eta euskarazko erakusleen ordezkapenari ere.
- (1) Euskarazko hainbat adierazpen eta esaera berezi ezagutzea eta erabiltzea. (2) Konturatzea horiek funtzio desberdinak betetzen dituztela komunikazio-egoera zehatzetan: kortesia, adostasuna, desadostasuna, eskaera, duda, ukoa...
- (1) Oinarrizko gramatika kategoriak ezagutzea, besteak beste, izenak, adjektiboak, determinatzaileak, pertsona izenordainak eta aditza. (2) Perpaus bat osatzen duten elementuak antzematea: substantiboak, adjektiboak, determinatzaileak, pertsona-izenordainak, aditzak, adberbioak eta lokailuak.
- (2) Euskararen hika formako hizkera ezagutzea eta, lagunarteko erregistroaren erabilera egokia den egoeretan, gero eta gehiago erabiltzea; bereziki, ahozko komunikazioan.
- (2) Euskararen fonema bereziak eta, hizketa-kate batean, hitzek izaten dituzten fonema-eraldaketak zuzen ahoskatzea.
- (2) Ikasturtean landutako testuetan, igorle-aztarnak antzematea: pertsona-deixia, ziurtasuna edo aukera adierazteko hizkuntza formak eta balorazio

positibo nahiz negatiboak –ikonoari, lexikoari edo sintaxiari (perpausmodalitatea) dagozkionak.

- (2) Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- (2) Mezua hartzailearentzat ulergarriagoa izan dadin hainbat prozedura erabiltzea; bereziki, balio esplikatiboa duten adierazpenak perpausentzertatzea (apozizioa, adibideak eta erlatibo esplikatiboaren esaldiak).
- (2) Nork bere egite-prozesuak eta ekoizpen mintzatuen emaitzak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea, ereduetan oinarrituta.



5. eduki multzoa: Hizkuntzaren dimentsio soziala

Hizkuntza bakoitzak mundu-ikuskerara bat dakar eta bere dimentsio soziala dauka. Hizkuntza guztien aberastasuna da aintzat hartzekoa eta hizkuntzen aldaerak ere bai, hizkuntzen bizitasunaren eta aldakortasunaren adierazle direlako. Batez ere euskalkie ireparatzen diegu guk. Euskalki guztiak dira ederrak eta baliagarriak.

- Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak bideratzeko bitartekotzat eta komunitate baten identitate seinaleztat balioestea.
- Nork bere euskalkia erabiltzea, eta gainerakoak hizkuntza aberastasun ezaugarritzat balioestea.
- Hizkuntza estandarrak hizkuntza aldaera desberdina duten hiztunen arteko komunikazio tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.
- Euskal gizartearen errealitate eleaniztuna eta kultura aniztasuna onartzea. (2) Horretarako, hainbat hizkuntzatako testuak bilatzea, irakurtzea eta entzutea.
- (1) Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren zenbait kalko oker identifikatzea eta zuzentzea. (2) Horretarako, euskararen hitz eta adierazpen berezkoak ezagutu eta erabiliko dira.
- (1) Hizkuntza guztien aldeko jarrera positiboak garatzea, eta, bereziki, euskararen normalizazio-prozesuarekiko jarrera baikorra. (2) Jarrera-aldaketaren beharra aitortzea; hau da, hizkuntza desberdinen aldeko jarrera positiboak garatzea, eta, bereziki, euskararen normalizazio-prozesurako

norberak erantzukizunez jokatzeko. Horretarako, euskararen erabilerari lehenetsia emango zaio, bai pertsonen arteko harremanetan, bai ikaskuntza-egoeretan.

- (2) Ereduetan oinarrituz, azterketa bateratuak eginez eta testuak entzunez, euskarak historian izan duen bilakaera eta dituen barietateak (euskalkiak) ezagutzea; horrela, beste edozein kasutan bezala, bizirik dagoen eta etengabe aldatzen ari den hizkuntzatzat hartuko da. Horrez gainera, ikasleak ohartuko dira hizkuntzaren ikuspegitik aldagai guztiek balio bera dutela; hau da, ez dagoela besteak baino hobea den aldagairik.
- (2) Hizkuntzei eta horien hiztunei erreferentzia egiten dieten oinarrizko kontzeptuak ezagutzea (eleanitza, elebakarra, elebiduna, erabilera-eremua, hizkuntza ofiziala, ama-hizkuntza...); horretarako, gai horiei buruzko ahozko eta idatzizko testuen ereduak aztertuko dira.
- (2) Barneratutako ezagutzak erabiliz, ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa behatzea eta aztertzea.
- (2) Hizkuntzak garatzeko, sustatzeko eta normalizatzeko erakundeak ezagutzea.

GAI NAĢUSIAK

Euskara eta Literatura irakasgairako DBHko 1. eta 2. mailatarako zehaztutako eduki guztiakin Euskara eta Literatura ikasgaiarekin lotutako **12 bideo-fitxa** pedagogiko prestatu ditugu, gazteen zein adinekoen testigantzak oinarri hartuta. Proposamen horiek **bost gai nagusitan** banatuta daude, eta atal bakoitzak bere **fitxa didaktikoak** ditu.



A. EUSKARAREN ABERASTASUNA.

Euskararen aberastasuna aipatzen dugunean, euskalkiak datozkigu burura. Izan ere, herri hizkerek naturaltasuna eta adierazkortasuna ematen diote hizkuntzari. Euskalkiak eta euskara batua elkarren osagarri dira, eta horretarako beharrezkoa da biak ezagutu eta balioestea, eta bien erabilera sustatzea. Euskalkiekin lotutako bideo bat prestatu dugu, ulermenari buruzkoa: euskalkietan dihardugunean, zaila al da elkar ulertzea? Zer egin dezakegu ulergarriago gerta dadin? Ikasleengan euskalkiekiko interesa pizteko balioko du, eta baita hitz egiteko modu diferenteak ezagutzeko ere, jolasaren bidez eta sormena erabiliz.

Gaia:

- Euskalkiak: ezin elkar ulertu?

B. EUSKARA ETA AISIA

Kontu jakina da euskararen erabilera asko murrizten dela ikasleak ikastetxetik kanpo dabiltzanean, beren ingurunea ez bada oso euskalduna behintzat. DBHko hasierako mailak oso garrantzitsuak izan daitezke gai hau jorratzeko, nerabegaroko aldaketa garaia delako. Zer gertatzen da euskararekin aisialdian? Zergatik eta noiz jotzen dugu erdaretara? Zer oztopo ditugu euskaraz bizi ahal izateko? Zer nolako presentzia dauka euskarak sare sozialetan? Kontsumitzen al dugu euskaraz (liburuak, antzezlanak...)? Galdera hauei erantzuna topatzen saiatuko gara, bost bideoen bitartez. Hainbat gazteren testigantzak erabili ditugu horretarako: euren bizipenak eta esperientziak ezagutuko ditugu.

Gaiak:

- Euskararen erabilera aisialdian
- Hizkuntza-jarrerak

- Euskaraz bizi nahi dut!
- Euskara eta teknologia berriak
- Euskara eta irakurzaletasuna

C. EUSKARAREN HISTORIA

Euskararen historian esanguratsuak izan diren hainbat gertaera eta pertsona ezagutu eta aztertzeko bidea ematen digu atal honek, 1936ko gerrak baldintzatutako giroari lotutakoak denak ere. Batetik, euskara nola zentsuratu izan duten ezagutuko dugu: adierazpen-askatasuna urratzeko hainbat modu. Bestetik, euskalgintzan zeresana izan zuten bi emakume ekintzaile ezagutzera emango ditugu. Lehenaldia ezagutzeko aukera emateaz gainera, bideoek gaur egungo egoerari buruz hausnartzeko ere balio digute, besteak beste emakume ekintzaileen inguruan.

Gaiak:

- Euskara eta zentsura
- Emakume aitzindariak: Elbira Zipitria
- Emakume aitzindariak: Maria Dolores Agirre

D. AHOZKO LITERATURA

Ahozko literatura ahoz aho transmititzen dena da, belaunaldiz belaunaldi iritsi zaigun ondarea. Altxor hori ezagutu eta zaintzeko, garai bateko sehaska-kantak aztertu eta landuko ditugu. Eta literatura nola transmititu, hori ere landuko dugu. Transmisioa posible izan dadin, komunikazioa egon behar baita. Ipuin-kontalari profesionalen laguntza izan dugu horretarako: ipuinak kontatzeko estrategien berri eman digute. Sasoi bateko ipuinekin zein gaur egungoekin lotutako lanketak prestatu ditugu, ahozko transmisioa helburutzat hartuta.

Gaiak:

- Sehaska-kantak
- Nola kontatu ipuin bat?

E. AHOZKO TESTU-GENEROAK

Ahozko komunikazioa lantzeko, ahozko testu-generoak ezagutu beharra dago. Ahozko eredu beharra nabarmena da hezkuntzan, ikasmaterialak idatzizkoan oso oinarrituta

daudelako. Erraz identifikatzeko moduko testu-generoetako bat elkarrizketa da, eguneroko jardunean darabilgulako. Ahotsak.eus proiektuan jardun naturalaren emaitza diren hainbat testu-generoren adibideak ditugu, eta hainbat elkarrizketa eredu ditugu jasota. Eredu apropos batzuk aukeratu ditugu, haiek oinarri hartuta ikasleak testu-generoen ezaugarriak zein testuinguruak aztertzeko eta identifikatzeko gai izan daitezen, eta (2. mailan) beraiek ere testu-generoak sor ditzaten.

Gaia:

- Elkarrizketa motak

Ikus ditzagun fitxa didaktikoak banan-banan, bakoitzarekin zer landu daitekeen:

1. Euskalkiak: ezin elkar ulertu? (Euskararen aberastasuna)

Desberdintasun handiak al daude euskalkien artean? Ulertzen al dugu elkar? Zein oztopo ditugu? Zer egin ulermena bideratzeko? Iparraldeko zein Hegoaldeko gazteen testigantzak erabili ditugu gai honi buruzko bideoa osatzeko. Ikasleek euskalkien inguruan dituzten pertzepzioez hausnartuko dute, euskalkiekin lotutako lanketa-proposamenen bitartez. Ereduetan oinarrituz, azterketa bateratuak eginez eta euskalkien adibideak entzunez, euskararen aldaerak ezagutuko dituzte; horrela, ohartuko dira hizkuntzaren ikuspegitik aldaera guztiek balio bera dutela. 2. mailarako aproposa.



- Landuko diren kontzeptuak: euskalkia, herri-hizkera, ulermena, bizikidetza, ahozkotasuna, aniztasuna
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa
 - Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Bizikidetzarako eta elkar ulertzeko nahia
 - Euskalkiak ezagutu eta erabiltzeko gogoia

2. Euskararen erabilera aisialdian. (Euskara eta aisia)



Zer gertatzen da euskararekin aisialdian? Jakintza eta erabilera ez datoz bat sarritan: euskaraz jakin arren, ikasketak euskaraz egin arren... batzuetan ez dugu erabiltzen. Erdaretara jotzen dugu. Zergatik? Kirolaren esparrua da horren adibide. Hori bai, arnaguneak ere badira: bertsolaritza, euskal dantzak... Horri guztiari buruz hitz egiten dute hainbat gaztek bideo honetan. Helburua: ikasleek aisialdiko euren bizipenak aztertzea eta ulertzea, ondoren lanketak egiteko.

- Landuko diren kontzeptuak: hizkera formala/informala, hizkuntza-jarrerak, aisialdia, arnaguneak, normalizazioa, elebitasuna
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Errealitate soziolinguistikoa ezagutu eta ikuspegi kritikoz interpretatzeko nahia
 - Norbere hizkuntza-jarrerak aztertu eta ulertzeko interesa
 - Euskara eta herri-hizkerak (hizkera informala) ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
 - Hizkuntza-normalizazioarekiko konpromiso aktiboa

3. Hizkuntza-jarrerak. (Euskara eta aisia)

Zer hizkuntza-ohitura ditugu etxean eta lagunekin? Erraza al da hizkuntza-jarrerak aldatzea? Nola egin liteke? Zer faktorek eragiten dute? Gazteen testigantzekinosatutako bideoa da: harreman mota aldatzeko zailtasunak dituzten gazteak eta erdaraz zituzten harremanak euskarara ekartzea lortu dutenak. Gure hizkuntza-jarrerei buruz jabetzeko balio du, eta aldaketak posible direla erakusteko. Hainbat proposamen prestatu ditugu, besteak beste: ikasleek aldaketa hori egin duten pertsonak elkarrizketa ditzatela.



- Landuko diren kontzeptuak: hizkuntza-ohiturak, hizkuntza-jarrerak, ahozkotasuna, hizkera formala/informala, herri-hizkerak
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Euskararen egoeraz eta normalizazio-prozesuaz jabetzeko interesa
 - Norbere eta besteen hizkuntza-jarrerak aztertzeko eta ulertzeko nahia

- Hizkera formala eta informala bereizteko asmoa
- Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoa
- Hizkuntza-ohiturak aldatzeko borondatea

4. Euskaraz bizi nahi dut! (Euskara eta aisia)



Euskaraz bizi nahia eta ahaleginak. Horixe da bideo honen oinarria. Euskaraz bizi nahi duten hainbat gazteren testigantzekindago osatuta. Horretarako dituzten oztopoak eta euskaraz bizitzeak dakartzan satisfakzioak, biak aletzen dituzte. Ikasleek euskararekiko duten jarrera aztertzeke balio du eta, bidenabar, baita besteen sentipenak ezagutzeko eta erresperatzeko ere. Euskaraz bizitzeko nahia indartzeko eta gizarteratzeko jarduerak proposatzen ditugu.

- Landuko diren kontzeptuak: hizkuntza-ohiturak, hizkuntza-jarrerak, ahozkotatasuna, hizkera formala/informala, normalizazioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Euskararen egoeraz eta normalizazio-prozesuaz jabetzeko interesa
 - Norbere eta besteen hizkuntza-jarrerak aztertzeke eta ulertzeke nahia
 - Hizkera formala eta informala bereizteke asmoa
 - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoa
 - Hizkuntza-ohiturak aldatzeke borondatea

5. Sare sozialak eta euskara. (Euskara eta aisia)

Zer nolako pisua dute teknologia berriek gaur egungo gizartean? Zer hizkuntzatan erabiltzen ditugu? Euskarak sare sozialetan eta teknologia berrietan duen presentziari buruzkoa da bideo hau. Hainbat gaztek euren esperientziaren berri ematen dute. Hausnarketarako bidea zabaltzeaz gainera, sare sozialetara bideratzeko jarduerak proposatzen ditugu. Bide batez, teknologia berrien gehiegizko erabileraz eta erabilera okerreaz pentsarazteke ere balio du.



Sare sozialak eta euskara

- Landuko diren kontzeptuak: sare sozialak, teknologia berriak, hizkuntza-ohiturak, hizkuntza-jarrerak, ahozkotatasuna, hizkera formala/informala
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:

- Errealitate soziolinguistikoa ezagutu eta ikuspegi kritikoz interpretatzeko nahia
- Euskararen egoeraz eta normalizazio-prozesuaz jabetzeko interesa
- Sare sozialen eta teknologia berrien erabilerari buruz pentsatzeko gogoia
- Hizkera formala eta informala bereizteko asmoa
- Hizkuntza-ohiturak eta jarrerak aztertu, ulertu eta aldatzeko borondatea

6. Euskara eta irakurzaletasuna. (Euskara eta aisia)

Nola sortzen da irakurzaletasuna? Etxetik dator, familiako ohituren eraginez? Norberak bere kabuz egiten duen prozesu pertsonala ote? Ikastetxeetan susta daiteke? Hainbat gaztek irakurzaletasunari buruzko iritziak eta esperientziak partekatzen dituzte bideo honetan. Ikasleei euren esperientziak kontatzeko eta gustuko liburu eta irakurgaiak proposatzeko bidea emango die. Gainera, sormena lantzeko eta irakurketa ozena egiteko proposamenak ere egiten ditugu.



- Landuko diren kontzeptuak: irakurzaletasuna, literatura, irakurgaiak, hizkuntza-ohiturak
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Euskararen egoeraz eta normalizazio-prozesuaz jabetzeko interesa
 - Errealitate soziolinguistikoa ezagutu eta ikuspegi kritikoz interpretatzeko nahia
 - Hizkuntza-jarrerak aztertu, ulertu eta aldatzeko nahia
 - Euskarazko liburuak ezagutzeko eta irakurtzeko gogoia

7. Euskara eta zentsura. (Euskararen historia)



Frankismo garaia sasoi latza izan zen euskararentzat. Euskarazko kultura-jarduerak oso mugatuta zeuden. Sistemak ezarritako zentsura motak ezagutuko ditugu, adinekoen testigantzen bitartez. Euskararen historia ezagutzeko baliagarria gertatuko da eta baita adierazpen-askatasunari buruz pentsarazteko ere. Proposamenetako bat gaur egun munduan gertatzen diren urraketak aztertzea da.

- Landuko diren kontzeptuak: zentsura, frankismoa, diktadura, adierazpen-askatasuna, debekua

- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua ezagutzeko interesa
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa
 - Izpiritu kritikorako eta hausnarketarako grina
 - Adierazpen-askatasuna defendatzeko nahia

8. Emakume aitzindariak: **Elbira Zipitria**. (Euskararen historia)



Euskalgintzan jardundako sasoi bateko emakumeen artean baliteke Elbira Zipitria izatea ezagunenetako bat, ikastola klandestinoak sortzen eta andereñoak prestatzen egin zuen lanarengatik. Hala ere, ez da aski ezaguna. Hura ezagutu zuten hainbat lagunen testigantzak batu ditugu. Hala, Elbira nor zen hobeto jakingo dugu, eta haren bizitzako argi-ilunak ezagutuko ditugu. Garai bateko emakumeen ezkutuko lana plazaratzeko balio du, eta genero-ikuspegia lantzeko proposamenak egin ditugu. Besteak beste, andereño lanetan ibili ziren emakumeak ikertzeko bidea ematen du.

- Landuko diren kontzeptuak: frankismoa, klandestinitatea, isilpeko ikastolak, hezkuntza, euskalgintza, genero-ikuspegia
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Euskararen eta euskalgintzaren historia ezagutzeko interesa
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Genero-ikuspegia sustatzeko nahia
 - Izpiritu kritikorako eta hausnarketarako grina

9. Emakume aitzindariak: **Maria Dolores Agirre**. (Euskararen historia)

Antzerki-zuzendaria eta euskara-irakaslea, Maria Dolores Agirrek zeresan handia izan zuen Donostiako eta Gipuzkoako kultura-bizitzan. Hiriko kale batek haren izena dauka. Baina ba al dakizu nor zen, zer egin zuen eta nolakoa zen? Hura ezagutu zuten hainbat lagunen testigantzak batu ditugu. Hala, Maria Dolores nor zen jakingo dugu, eta, hark egindako ekarpena kontuan hartuta, antzerkigintzan diharduten gaur egungo emakumeei begira ere jarriko gara.



- Landuko diren kontzeptuak: frankismoa, euskalgintza, antzerkigintza, hezkuntza, genero-ikuspegia
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Euskararen eta euskal kulturaren historia ezagutzeko interesa
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Gaur egungo emakumeen lana ezagutzeko gogoia
 - Genero-ikuspegia sustatzeko nahia

10. **Sehaska-kantak.** (Ahozko literatura)



Ahoz aho transmititzen diren kanten artean, besteak beste, sehaska-kantak daude, umeei lotarako kantatzen zaizkienak. Bideo honetan adinekoei jasotako hainbat sehaska-kanta batu ditugu. Helburua kanta horiek ezagutaraztea eta gaztetxoaren artean abestiak ikasi, sortu eta kantatzeko grina sustatzea da. Ikasleek sehaska-kanten eta umeendako kanten bilduma bat egin dezatela proposatzen dugu, beste jarduera batzuen artean.

- Landuko diren kontzeptuak: kantak, tradizioa, ahozkotasuna, transmisioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa
 - Kantak ezagutzeko eta kantatzeko grina
 - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia

11. **Nola kontatu ipuin bat?** (Ahozko literatura)

Ipuin-kontalarien lana ezagutuko dugu, ipuinak kontatzeko orduan zer izaten duten kontuan, alegia. Ipuin-kontalariak dira bideoan agertzen direnak, erabiltzen dituzten teknikez hizketan. Bi ipuin-kontalari elkarriketatu ditugu horretarako, Amaia Elizagoien “Ameli” eta Joxe Mari Karrere, eta ipuin labur bana kontatzeko ere eskatu diegu, emandako azalpenen erakusgarri. Bideo honen asmoa ikasleak ipuinak sortzen (2. mailan) eta kontatzen jartzea da, haiek ahozko transmisioaren magian barneratzea.



- Landuko diren kontzeptuak: ipuina, ipuin-kontalaria, narrazioa, kontaketa, testu-generoa, ahozkoasuna, transmisioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Fikziozko istorioak sortzeko eta kontatzeko irrika
 - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia

12. Elkarrizketa motak. (Ahozko testu-generoak)



Elkarrizketa ahozko testu-genero garrantzitsua da, ingurukoekin komunikatzeko darabilguna, egunero-egunero eta ia oharkabeen. Jardun librea eta elkarrizketa gidatua, horiek dira Ahotsak.eus-eko elkarrizketetan gehien lantzen ditugunak. Bi elkarrizketa mota horien adibideak batu ditugu bideoan, eta ikasleak horiek aztertzeraz eta birsortzeraz (2. mailan) bultzatuko ditugu, besteak beste, mahainguruak egitera. Aukeratutako bideo-pasarteak edukiz ere interesgarriak dira, eta gai horiek ere hausnarketarako bidea

eman dezakete.

- Landuko diren kontzeptuak: elkarrizketa, bakarrizketa, mahai-ingurua, kontaketa, testu-generoa, ahozkoasuna
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Gure arbasoen bizimodua ezagutzeko interesa
 - Elkarrizketarako eta bizikidetzarako jarrera
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa
 - Euren bizipenak kontatzeko eta besteenak entzuteko interesa
 - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia

NOIZ ETA NOLA ERABILI

- *NOIZ erabili:*

Euskara eta Literatura irakasgaia ematerakoan erabiliko da ikasmaterial hau, DBHko 1. eta 2. mailatan. Fitxa batzuetan bai, baina gehienetan ez dugu zehaztuko bideo bakoitza DBHko zein mailatan erabili, kasuan kasu eta ikastetxez ikastetxe aldatu egingo baita hori. Irakasleak erabakiko du.



- *NOLA erabili:*

Irakasleak Interneten dauka ikasmateriala, lizentzia librearekin erabilgarri. <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> atarian aurkituko du, **Gaiak** atalean, hain zuzen. Euskal Herriko ikastetxe orok du erabiltzeko aukera. Asko dira bideo-fitxak, gero eta gehiago. Horregatik, bost ataletan banatuta dagoen bilaketa-sistema bat garatu dugu, bakoitzak interesatzen zaiona errazago aurki dezan:

- Motak
- Mailak
- Gaiak
- Ikasgaiak
- Proiektuak

Erabiltzaileak, bere interesen arabera, laukitxoetan (bakarrean edo nahi bestetan) klik egiteko aukera dauka. Adibidez:

- “EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” (proiektua)
- Euskara eta Literatura (ikasgaia)
- Ahozko testu-generoak (gaia)

-Motak. Bi motatako bideo-fitxak daude: 1. Fitxa didaktikoak; 2. Kantak eta jolasak. Ikasmaterialekoak fitxa didaktikoak dira.


-Proiektuak. Hainbat proiektutarako prestatutako bideo-fitxak ditugu.

“EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua aukeratuz gero, proiektu horretarako prestatu ditugun lanketa guztiak agertuko zaizkigu.

-Ikasgaiak. Irakasgaien zerrendan, nahi duena aukeratu dezake irakasleak. Adibidez, “Herritartasunerako Hezkuntza”n klik eginuz gero, irakasgai horrekin lotutako fitxa guztiak agertuko zaizkio: hamabi fitxa.

-Gaiak. Gaien zerrendan, gai bat aukeratu dezake irakasleak. “Genero berdintasuna” aukeratuz gero, adibidez, gai horrekin lotutako fitxak agertuko zaizkio: hamasei fitxa.

-Mailak. Etapa bakoitzean zer fitxa dauden ikusteko aukera ere badauka irakasleak. Adibidez, DBHrako zer fitxa didaktiko dauden.



Webgunean eginiko bilaketa ororen emaitza ikus-entzunezko bat izango da beti. Eta hantxe izango du irakasleak beharrezko informazio guztia: bideoa, laburpena, proposamen didaktikoa, informazio osagarria... Adibiderako, ikus fitxa hau: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-transmisioaren-etena>

Bideoa eta proposamenak ikusita, irakasleak erabakiko du nola erabili: proposatzen diren jarduerak bere egin, beste batzuk prestatu edo zer lanketa egin nahi duen eta zenbat denbora eskaini gai horri. Unean uneko egoerari, mailari eta ikasle taldeari egokituta hartuko ditu erabakiak, ikasleekin adostasunak bilatuta.

Nahi izanez gero, irakasleek zein ikasleek ikus-entzunezkoak euren ordenagailuetara jaisteko aukera dute. Gainera, ikus-entzunezkoek transkripzioa daukatenez, testua modu errazean lortzeko aukera dago, inprimatu eta ikasleei emateko moduan.

Irakasleek eta ikasleek materialari buruzko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera dute webgunean bertan uneoro. Ikasmateriala erabilia sortutako ekoizpenak partekatzeko

aukera ere bai. Hala, aldaketak egiten eta materiala hobetzen joango gara etengabe. Interaktiboa izango da.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK: planteamendu didaktikoa

30

Fitxa pedagogikoen oinarria testigantzez osatutako hamabi bideo dira. Eta bideoak **“Proposamen pedagogikoa”** izeneko atala du beti. Atal nagusia hori da, eta bertan bideoarekin lotutako jarduera-ereduak proposatzen dira.

Bestalde, fitxa pedagogikoan informazio gehiago ere izan daiteke (irakasleentzat egokia eta baliagarria izango dela ikusiz gero jartzen duguna): testua, informazio osagarria, lotura interesgarriak...

Ikus ditzagun zehaztasun handiagoz fitxako atalak:

A- “Proposamen Pedagogikoa” atala

Proposamen pedagogiko guztietan, lehenengo eta behin, hauxe jartzen dugu: proposamen horrekin ikasleengan zer jarrera sustatzea dugun helburu. Adibidez, Euskararen transmisioaren etena fitxan hauek datoz:

- *Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa*
- *Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea*
- *Ahozko ondarea ezagutu eta balioesteko gogoia*
- *Bizikidetzarako eta elkarlanerako asmoa*
- *Euskara zaindu eta sustatzeko grina*

Jarduera-proposamenak bideoarekin lotuta daude, eta **hiru alditan** banatuta. Aldi bakoitzerako jarduera batzuk proposatuko ditugu:

1. Bideoa ikusi aurretik egitekoak:

- Iraganera begira jarri
- Aurre-ezagutzak aktibatu
- Erreferentziak eman
- Iritziak jaso (galderak, jolasak, dinamikak)
- Hipotesiak egin

2. **Bideoa ikusi bitartean egitekoak:**

- Aurre-ezagutzak konparatu
- Ulermenarekin lotutako zalantzak argitu eta hiztegia landu

3. **Bideoa ikusi ondoren egitekoak:**

- Ulertu dutela ziurtatu
- Iragana eta oraina konparatu (galderak, jolasak, dinamikak)
- Gaur egungo egoerari begiratu. Hausnarketa eragin.
- Azken ekoizpena: hainbat ekoizpen proposatzen ditugu aukeran. Hamar azpi-ataletan sailkatu ditugu ekoizpen-proposamenak:

"Testigantza bila". Ahotsak.eus webgunean testigantza gehiago bilatzea, adibidez herrikoak, gai horri buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.

"Hitzen arrastoan". Testigantzen barrunbeak aztertzea, alderdi linguistikoa bereziki, eta hitz aproposak aukeratuz nahi duguna deskribatzea, azaltzea...

"Zu zeu elkarrizketatzaille". Ikasleek elkarrizketak egitea, adinekoei batik bat, etxeko eta gertuko egoera ezagutzeko. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daiteke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.

"Gaur egunera begira". Gaur egungo egoerari begiratzea, atzokoa eta gaurkoa alderatu ahal izateko.

"Historia egiten". Ikerketa eginez, historiara begiratzea, gai horrek izan duen garapena ezagutzeko aukera izateko.

"Mundu zabalean". Mundura begira jartzea, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko eta gaia bere osotasunean ulertzeko.

"Eman iritzia". Gai horri buruz hausnartzea, nork bere iritzia eraikitzeke, besteak beste, iruzkin kritikoak eta iritzi artikulatuak eginez.

"Ika-mika". Gai horri buruz hausnartzea, eta nork bere iritzia defendatzeko argudioak izateaz gainera, gainerako iritziak ulertzea eta errespetatzea, eztabaida formalen bidez batez ere.

"Bestearen azalean". Besteen azalean jartzea, eta egoerak asmatzea, rol jokoaren bidez, enpatia lantzeko.

"Jolasten". Jolasak erabiltzea, eskulanak batez ere, jolastuz ikasteko.

"Sormena lagun". Irudimena lantzeko eta sormena bultzatzeko ariketak erabiltzea, artearen bidetik joz (ilustrazioa, komikia...) eta *brainstorming* edo ideia-ekaitzak eta lehiaketak sustatuz.

- **Ekoizpena burutu eta partekatu.** Azken ekoizpenean ahozkotasuna lantzea da gure erronka, ahozkoari ematea garrantzia. Horrenbestez, ahozko jardueraren bat egingo dute ikasleek, gelakideei beren lanaren emaitza ezagutarazteko (azalpena, antzezlan, eztabaida, ipuina kontatzea...). Jarduerak laburrak izaten dira eta kasu askotan bideoz grabatzea proposatzen dugu (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoez jabetzeko, eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da.
- **Grabazioak ikusi eta ebaluatu.**

Ebaluazio-irizpideak. Fitxa guztietan jartzen ditugu, irakasleak ikasleak ebaluatzeko eta ikasleen autoebaluaziorako irizpideak.

B- Gainerako atalak

Atal hauek ere badituzte fitxek:

- **Testua.** Grabazioaren edukia, idatziz, ulermena errazteko. Irakasleak testua inprima dezake, eta ikasleei banatu, bideoa hobeto ulertzeko lagungarria gertatuko zaiela iruditzen bazaio.
- **Testuingurua.** Gaiari kokatzeko balio duen informazioa, jakingarriak: testuingurua, historia, azalpenak... Eta gaiarekin lotutako beste bideo batzuen loturak: *Ahotsak.eus* webgunekoak, *Ikasgelan* webgunekoak zein Interneteko bestelako material interesgarriari buruzko erreferentziak.
- **Argazkiak.** Argazkiak ere ipintzen ditugu, baliagarria dela iruditzen zaigunean. Adibiderako, ikus [Bertsolaritzaren garapena](#) fitxa.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK

1. *Gaia*: Euskalkiak: ezin elkar ulertu? (Euskararen aberastasuna)

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskalkiak-ezin-elkar-ulertu>

33

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation menu (Sarrera, Honi buruz, Materiala, Euskalkitegia). The main content area features a video player with the title 'Euskalkiak: ezin elkar ulertu?'. A green arrow points to the video player. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

Mailak:	DBH
Proiektuak:	EIIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Bizikidetzak, Euskara
	0 puntu 5 izarreko maximoetik
	0 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

1. Euskalkiak izango ditugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatzen. Guztira zenbat euskalki dauden eta zein diren galdetuko diegu ikasleei. Ea asmatzen duten! Koldo Zuazoren [euskalkien sailkapena](#) ere ikus dezakegu.
2. Euskalkiei buruz dugun ikuspegia lantzeko, bideo labur hau ikus dezakegu: [Euskalkiak](#). Ondoren, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Nongoa da euskara onena bideokoentzat? Zergatik diote hori? Nongoak dira? Zuen ustez, garbi hitz egiten al dute?
- Edukiz gero, zuen euskalkiari buruz hausnartu: gustatzen zaizue? Politika da? Oso diferentea al da euskara batuarekin alderatuz?
- Ezagutzen al duzue beste euskalkirik? Zuentzat nongoa da ulertzeko zailena?
- Ona al da euskalki asko egotea? Abantailak eta desabantailak aipatu.

3. Euskalkiak ulertzeko zailtasunak: hori da ikusiko dugun bideoaren gaia. Girotzeko, **telefono matxuratuaren jolasa** egin dezakegu.

Biribilean jarriko gara (lurrean eserita egin daiteke), talde handietan banatuta. Talde bakoitzeko batek esaldi bat esango dio aldamenekoari belarrira, azkar eta ondo ahoskatu gabe. Eta gauza bera egingo du hurrengoak: ulertu duena ondokoari belarrira esan. Azkenengoak ozen esango du ulertu duena, eta lehenengoak, berriz, hasierako esaldia zein zen.



Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan har ditzatela. Aukera bat: testua inprimatu eta ikasleei banatzea, nabarmendu nahi dutena edo ulertu ez dutena apuntatzen joan daitezten.

3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Esate baterako, euskalkietako hitzak eta aditzak: *pasetan jat* (pasatzen zait, gertatzen zait), *iduritzen* (iruditzen), *nehi bozu* (nahi badozu), *aittuten* (ulertzen), *berbetan* (hitz egiten), *usaian* (normalean, ohituraz), *erraiten* (esaten), *giputxak* (gipuzkoarrak), *apur bat* (pixka bat), *urtetzen jata* (irteten zait), *solastu* (hitz egin), *erran* (esan)...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Erraz ulertu al duzue esan duten guztia? Noren euskara egín zaizue ulertzeko zailena?
- Zuek bizi izan al duzue bideoan kontatu dituzten esperientzien antzekorik? Kontatu.
- Aldatzen al duzue hitz egiteko modua beste toki batzuetako jendearekin?
- Zer egín elkar ulertzeko arazoak daudenean?
- Euskara batura jo beharrik gabe, aberasgarriagoa da norke bere euskalkia erabiltzea. Ados al zaudete?
- Ba al duzue konplexurik euskalkiarengatik edo euskalkirik ez izateagatik?
- Zuen ustez, euskalkiak badakar herri nortasunik?

3. Euskalkitegia jokoarekin jolas eginez, ikasleak ea euskalkiekin zer moduz moldatzen diren ikus dezakegu. Belarria beste doinu batzuetara ohitzen hasteko ordua da!
4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *“Testigantza bila”*. Hainbat tokitako euskalkiak ezagutzeko aukera izango dugu, Gazte Gara Gazte proiekturako elkarrizketatutako gazteen testigantzei esker. Banaka edo binaka egiteko ariketa izan daiteke. Ikasle (-bikote) bakoitzari taulako herri bat egokituko zaio, eta, beraz, hiztun bat (edo bi: gazte batzuk binaka baitaude elkarrizketatuta).


<u>Aiherra</u>	<u>Donapaleu</u>	<u>Lasarte</u>	<u>Muxika</u>
<u>Aramaio</u>	<u>Elgoibar</u>	<u>Hondarribia</u>	<u>Oiartzun</u>
<u>Azkoitia</u>	<u>Eibar</u>	<u>Irun</u>	<u>Soraluze</u>
<u>Azpeitia</u>	<u>Etxalar</u>	<u>Itsasu</u>	<u>Tolosa</u>
<u>Baztan</u>	<u>Etxarri-Aranatz</u>	<u>Lekeitio</u>	<u>Urruña</u>
<u>Bera</u>	<u>Gernika-Lumo</u>	<u>Leitza</u>	<u>Zarautz</u>
<u>Doneztebe</u>	<u>Getxo</u>	<u>Markina-Xemein</u>	<u>Zalgize-Donztebe</u>

Ikasle (-bikote) bakoitzak egokitutako hiztun horren/horien bideo-pasarte bat aukeratuko du, interesgarria iruditzen zaiona, eta minutu bat transkribatu (idatziz ipini). Hitz bereziak ere apuntatuko ditu, eta haien esanahia bilatu.

Lana egin ondoren, egindakoa gelakideekin partekatuko du, aurkezpen txiki bat eginez. Hauek izan daitezke aurkezpenerako gidalerroak:

- Hitzuna(k) nor d(ir)en azaldu
- Nongoa(k) d(ir)en zehaztu (herriaren kokapena)
- Zer euskalki hitz egiten du(t)en esan
- Pasarte hori aukeratzearen zergatia(k) argitu
- Pasarteari buruzko iritzia eta azalpenak eman (edukia eta esateko modua)
- Bideo-pasarte ipini

- *"Bestearen azalean"*. Antzerkia egingo dugu, ulermen-arazoak gaitzat hartuta. Talde txikietan jarriko gara, eta talde bakoitzak umorezko esketx labur bat prestatuko du. Adibidea: *bizkaitar bat eta gipuzkoar bat, elkar ulertu ezinik*.



Esketx bakoitza ikusi eta berehala, galdera hau egingo dugu: pertsonaiek lortu al dute elkar ulertzea? Erantzuna ezezkoa baldin bada, publikoak (ikaskideek) egoera konpontzeko proposamenak egingo ditu, eta segidan bigarrenez antzeztuko dute, baina proposatutako aldaketak sartuko dituzte (modu inprobisatuan).


Esketxak grabatzea proposatzen dugu. Hala, ikasleek euren esketxa ikusteko eta hurrengorako zer hobetu dezaketen erabakitze aukera izango dute.

- *"Hitzen arrastoan"*. Bideoko testigantzen barrunbeak aztertuko ditugu, alderdi linguistikotik. Horretarako, berriz ikusiko dugu bideoa (elkarrekin ikusi beharrean, ikasleek euren kabuz ikus dezakete, nork bere erritmora). Testua ere banatu diezaiekegu ikasleei, ulermen-arazoak baldin badituzte. Binaka egin dezakete lana. Taula hau erabil dezakete, euskalkiak eta euskalkien ezaugarriak identifikatzeko:

	HERRIA	HITZAK, ADITZAK, ESAMOLDEAK, AHOSKERA...
Bizkaieraz		
Lapurteraz		
Nafarreraz		
Gipuzkeraz		

Egindako lana partekatuko dugu, eta guztion artean taula bakarra osatzen joan. Zalantzak argitu, iritziak trukatu...

Ondoren, ikasle bakoitzak gustatu zaion hitzen bat aukeratuko du (posible da bideoan agertu ez den beste hitzen bat izatea ere, euskalki batekoa baldin bada), eta esaldi bat osatuko du (umoretsua baldin bada, hobeto), betiere hitz horrekin bat datorren euskalkia erabiliz. Gelakideekin partekatuko du:



Euskalkiak eta umorea bideoa ikus dezakegu, eta baita Gazteen euskara ere, besteak beste, euskalkietako hitz gehiago ezagutzeko.

- *"Sormena lagun"*. 2. mailarako proposagoa. Ikus-entzunezko bat gertatuko dute (taldeka), euskalkien aberastasuna islatzen duena. Ikasleek erabakiko dute nola egin nahi duten. Ideia batzuk:

1. Hainbat euskalkitako **esaldiak eta hitzak** erabiltzea (sinonimoak, esaterako: hitz egin, mintzatu, berba egin, solastu). Horrekin gidoitxo bat egin, eta ikasleek euren buruak bideoan (poltsikoko telefonoarekin egin daiteke) grabatzea hitz horiek esaten. Marrazkiak eta irudiak ere erabil ditzakete.
2. **Elkarrizketak egitea**, euskalki diferenteak jasotzeko (irakasleei, herritarrei...). Grabatutakoarekin euskalkien inguruko erreportaje moduko bat osatzea. Galderak guztien artean prestatu, eta elkarrizketak bideoan grabatzea gomendatzen dugu (grabazioak egiteko, ikus [jarraibideak](#)). Aukera bat: gero grabazioak [Ahotsak.eus](#) artxibora bideratzea (adibiderako, ikus: [Donostiako ikastetxea](#) eta [Lekarozko institutua](#)).
3. **Abestiak erabiltzea**. Abesti bat sor dezakete euskalkietako hitzekin. Edo jada existitzen den abesti bat edo zati bat erabili (adibiderako, ikus Gontzal Mendibilek kantatzen duen [Bagare](#) abestia, eta abesti horren [bertsio rockeroa](#)). Lipdub bat ere presta dezakete (esate baterako, [ikus Gizon arruntaren koplak](#)).

Euskalkia bizirik dagoen herrietan bertako euskalkia erabiltzea litzateke politena: herriko euskalkiaren aldeko bideoa egitea. Girotzeko, [Ondarruko berbak](#), [Geuk be ondarrutarrez](#) eta [Oiertzungo euskara](#) bideoak ikus ditzakegu.

5. **Ekoizpena partekatzea**. Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: esketxa, ikus-entzunezkoa, azalpena... eta, ahal dela, bideoan grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkiok: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

2. *Gaia*: Euskararen erabilera aisialdian (Euskara eta aisia)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-erabilera-aisialdian>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there is a navigation bar with buttons for 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main content area features a video player titled 'Euskararen erabilera aisialdian'. A green arrow points to the video player. To the right of the video player, there is a metadata box with the following information:

- Maiak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Euskara eta literatura
- Gaiak:** Euskara, Aisialdia, Kirola

Below the metadata box, there are two lines of text: '0 puntu 5 izarreko maximoto' and '0 iritzi guztira'.

40

Bideoa ikusi aurretik

1. Euskararen erabilera aisialdian: horixe izango dugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatzeneko. Gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Zer egiten duzue denbora librean? Zein dira zuen zaletasunak?
- Egiten al duzue kirolak? Bertsozaleak zarete?
- Aisialdian zer hizkuntza erabiltzen dituzue? Zein egoeratan? Non hitz egiten duzue euskaraz eta non erdaraz?
- Zer esparrutan jotzen duzue gehiago erdarara? Zergatik?

2. Kiroletako hitz teknikoak euskaraz esango ditugu (futbola, saskibaloia, pilota, txirrindularitza...), guztion artean zerrendatxo bat osatu arte. Adibidez, txartel horia. Ea zenbat hitz/kontzeptu ateratzeko gai garen!



Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Esate baterako, euskalkietako hitzak: *hagitz* (oso), *zinez* (benetan), *neke* (zaila), *erran* (esan), *ateka* (atea), *ainitz* (asko), *ukan* (eduki)...
3. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

-Zuek bizi izan al duzue bideoan kontatu dituzten esperientzien antzekorik? Kontatu.

-Zein dira euskararen arnasmuneak zure herrian? (Gaztetxea, dantza-taldeak, musika-eskola, bertso-eskola...)

-Zer hitz erabiltzen dituzue gaztelaniaz/frantsesez eguneroko bizitzan? Eta ingelesez? (Youtuber, flow...). Zergatik jotzen dugu beste hizkuntza batzuetara?

-Zuen ustez, euskara nahikoa erabiltzen/entzuten al da aisialdian?

-Euskara lotzen al duzue dibertitzearekin eta gozatzearekin?

-Euskararen normalizazio-prozesuaz dihardugunean, zertaz ari gara? Zer suposatuko luke normalizatzek? Beharrezkoa al da? Zergatik?

-Normalizatuta ez egotearen arrazoiak (hizkuntza txikia, bi hizkuntza hegemoniko, arrazoi politikoak...)

Euskararen historian sakondu nahi izanez gero, Euskararen kontrako neurriak eta Euskara eta zentsura bideoak ikus daitezke.

3. Euskarak ba al dauka erregistro informalik? Gazte-hizkerari buruzko hausnarketa eta jarduerak egin nahi izanez gero, hiru bideo hauek ikus daitezke (ikus bideo horien proposamen pedagogikoak ere).

- Hizkera informala: irainak
- Hitanoaren erabilera
- Sare sozialak eta euskara

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkoko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Gaue eguxera begira"*. Zein da euskararen erabilera une honetan gure herrian? Ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa behatzea eta aztertzea proposatzen dugu (DBHko 2. mailarako). Oinarrizko azalpenak emanda, kale-neurketak eta behaketa soziolinguistiko txikiak egin ditzakete ikasleek, eta ondorioak atera.

Aukera bat behaketa ikastetxean bertan egitea da, atsedendietan eta ikastetxe kanpoan (irteterakoan eta sartzerakoan). Beste gela batzuetako ikasleen jarduna behatzea, alegia, haiek konturatu gabe. Helburua ikasleen elkarrizketak zer hizkuntzatan izaten diren jakitea da, ikasgeletatik kanpo daudenean.

Ikastetxean euskararen erabilera neurtzeko taula hau erabil dezakete ikasleek:

Tokia:

Eguna:

Ordua:

Neurtzailea(k):

Zer egin dezakegu neurketetako emaitzekin? Ikasle-bikoteek behaketak toki desberdinetan egiten badituzte (adib., ikastetxea, herriko plaza, kiroldegia, gaztelekua, musika eskola...) bakoitzak bere emaitzak izango ditu, eta hortik nor bere datuak eta estatistikak atera beharko ditu. Ikastetxean, euskararen erabilerari buruz, adibidez, datu hauek atera ditzakete:

- *Zenbat elkarrizketak osatzen dute behaketaren lagina? Ikasle guztiak kontuan hartuta, ehuneko zenbat dira atsedendietan elkarrizketak euskaraz izan dituztenak?*
- *Zer mailatako ikasleak dira euskara gehien erabiltzen dutenak? Ehunekoak atera: DBH1ekoek ehuneko X, DBH2koek ehuneko X...*
- *Neskek ala mutilek egiten dute gehiago euskaraz gelatik kanpo daudenean? Neskek ehuneko X eta mutilek ehuneko X.*
- *Irakasleak gertu daudenean/ irakasleekin hitz egiten dutenean, euskara gehiago erabiltzen dute ikasleek?*

Grafikoak egin ditzakete (ez badakite, Excellen eta Word-en grafikoak nola sortu azalduko zaie).

Egindako lana gelakideekin partekatzea izango litzateke azken pausoa. Ahozko aurkezpenak egingo dituzte, emaitzak ezagutarazteko: jasotako datuak eta ateratako ondorioak. Ondoren, eztabaida-hausnarketa saioa ere antola daiteke:

- *Zer moduz moldatu zarete behaketak egiterakoan? Erraza ala zaila izan da? Kontatu zuen esperientziak.*
- *Behaketen emaitzak espero zenituztenak izan al dira? Harritu al zaituzte zerbaitek?*
- *Nahikoa egiten al da euskaraz aisialdian? Non egiten da gehien/gutxien? Zein adinetako jendeak darabil gehien/gutxien?*
- *Badauka garrantziarik darabilgun hizkuntzak? Zergatik egin euskaraz? Hizkuntza normalizatua al da?*
- *Egin beharko litzateke ahaleginen bat hizkuntza-ohiturak aldatzeko? Erantzuna baiezkoa baldin bada, zer egin daiteke aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko?*



- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari lanetan arituko dira. Herriko aisialdi gunetara joan, eta euskarazko eskaintzari eta erabilerari buruz galdetuko dute. Adibidez, kirol elkarteetan, gaztelekuetan, gaztetxeetan, musika eskolan, kultur etxean, bertso eskolan... gune horietako arduradunak eta erabiltzaileak elkarrizketa ditzakete. Banaka edo binaka egiteko moduko jarduera da. Galdetegiak gelan presta ditzakete guztien artean.

Bideoz grabatzea komenigarria litzateke (elkarrizketak egin aurretik, ikus [jarraibide orokorrak](#)), gero ikaskideei erakutsi ahal izateko eta materialarekin lanketak egiteko. Aukera bat: gero grabazioak [Ahotsak.eus](#) artxibora bideratzea (adibiderako, ikus: [Donostiako ikastetxea](#) eta [Lekarozko institutua](#)).

Ikasle/bikote bakoitzak egindako elkarrizketaren berri emango du gelan, aurkezpen txiki bat eginez. Horretarako, elkarrizketaren bideo-pasarte interesgarri bat aukeratuko du (5 minututik beherakoa). Hauek izan daitezke aurkezpenerako gidalerroak:

- Elkarrizketatua(k) nor d(ir)en azaldu
- Non eta zergatik elkarrizketatu d(ir)en kontatu
- Pasarte hori aukeratzearen zergatia(k) argitu
- Pasarteari buruzko iritzia eman
- Bideo-pasarte ipini

Ikasleek grabazio guztiekin ikus-entzunezko bat osa dezakete (edizio-programak erabilia), herrian euskararen erabilerak dituen hutsuneak agerian uzten dituena edo/eta euskararen arnaguneei balioa ematen diena. Ikastetxean eta herrian zabal daiteke, sare sozialen bidez.

Adibiderako, ikus Euskal Jakintza ikastetxeko ikasleek Iñigo Martinez futbol jokalaria egindako elkarrizketa:



- *"Sormena lagun"*. Bertsolaritza baliatuko dugu hitzekin gozatzeko. Errimekin egingo dugu jolas, ondo pasatzea beste helbururik gabe. Ikasleak talde txikietan jarriko dira eta bi hitz esango dizkiegu (adibidez, EDERRA eta ITXURA). Hitz horiekin errima duten bost hitz pentsatuko ditu talde bakoitzak (guztira hamar, gainerako taldeek entzun gabe), eta ondoren hitzak partekatu eta parekatu egingo ditugu.

ARAUA: Errepikatzen diren hitzek ez dute balioko, besteek bai. Ea zer taldetan esaten dituzten errima berezienak!

Talde bakoitzak bertso bana sortuko du errima horiekin, eta ondoren bertso hori ikaskideekin partekatuko dute. Nahi duten neurri eta doinua erabiliko dute. Jarrai ditzaketen pausoak:

- Neurria aukeratu
- Neurri horren arabera bertsoa osatu, azken puntutik hasita... Arbel digitala erabil daiteke
- Doinua aukeratu. Ikus doinutegia
- Bertsoa kantatu!

Bertsoa umorea egiteko baliabide paregabea da. Girotzeko, eta ikasleak horretaz jabe daitezen, umorezko pare bat bideo-pasarte ikus ditzakegu. Adibiderako: [Aita San Migel](#) eta [Nazioarteko egunak asmatzea](#) (iturria: [bertsoa.eus](#))

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: aurkezpena, ikus-entzunezkoa, bertsoa... eta, ahal dela, bideoan grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

3. *Gaia*: Hizkuntza-jarrerak (Euskara eta aisia)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/hizkuntza-jarrerak>

The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. The main navigation bar includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The 'Materiala' tab is selected. The main content area is titled 'Hizkuntza-jarrerak' and contains a video player. A green arrow points to the video player. To the right of the video player is a sidebar with the following information:

- Maiak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Euskara eta literatura
- Gaiak:** Euskara, Aisialdia

Below the sidebar, there are two lines of text: '0 puntu 5 izarreko maximoetik' and '0 iritzi guztira'.

Bideoa ikusi aurretik

1. Gure hizkuntza-ohiturei eta jarrerei buruz hitz egingo dugu, aurre-ezagutzak aktibatzeko. Gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Zer hizkuntzatan dira zuen harremanak? Norekin egiten duzue euskaraz/gaztelaniaz?
- Egon al da ohitura-aldaketarik zuen lagunartean edo familian? (Adibidez, pertsona berri bat etorri delako)
- Hizkuntza-ohiturak aldatzea zaila/erraza al da?
- Lehenengo hitza zer hizkuntzatan egiten duzue? Zergatik?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Esate baterako, euskalkietako hitzak.
3. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutelaa ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- “Orokorrean pentsatu ez dakítela euskaraz eta zuzenean erdaraz egín”. Gertatu al zaizue halakorik inoiz?
- Estereotípoak: zuen ustez, nolakoak dira euskaraz dakítenak? Eta ez dakítenak? Deskribatu!
- “Umeekin eta txakurrekin euskaraz”. Zuek ere bai?
- Inor sentitu al da “euskararen polízía”? Zer egoeratan?
- “Intímíatean erdaraz eta públíkoan euskaraz”. Gertatzen da halakorik zuen inguruan?
- Guay-a al da erdaraz egítea? “Kontajíoso” erdaraz egíteko joera?
- Ikastoletan euskaraz egíten al dute ikasleek?
- Eredu egokíak dituzue? Gurasoak, irakasleak... koherenteak al dira esaten/egíten dutenarekin?
- Klik bat aipatzen dute, kontzientzía-hartze bat... nola alda dítzakegu hizkuntza-ohíturak?

Hizkuntza-aldaketen 3 adibide agertzen dira bideoan: hirurak aztertu eta komentatu. Zer iruditu zaizue Aitorrek erabilitako sistema? (Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus [Aitorren elkarrizketa](#))

3. Gaian sakontzeko, bideo hauetakoren bat edo beste ikus daiteke (proposamen pedagogikoak dituzte):


- *Euskaraz bizi nahi dut!*
- *Euskararen transmisioaren etena*
- *Euskararen erabilera aisialdian*
- *Sare sozialak eta euskara*
- *Hizkera informala: irainak*

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkotzat bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Gaur egunera begira"*. Zein da gaur egungo egoera gure ikastetxean eta gure eguneroko bizitzetan? Norekin egiten dugu euskaraz eta norekin ez?

Esperimentu bat egingo dugu, ea funtzionatzen duen. Bi astez hizkuntza-ohitura aldatzeko konpromisoa hartuko dugu. Erronka indibiduala eta pertsonala izango da, bi pertsonaren arteko erabakia: ezinbestekoa da besteak ere nahi izatea (adibidez, ikaskide/lagun/senide batekin ohitura aldatu nahi badugu, baina hark ez badu nahi, jai dugu!). Bi aldeen konpromisoa hauxe izango da: elkartzeko diren aldiro euskaraz egitea bi aste horietan.

Bi asteren buruan, esperientziaren berri emango dute ikasleek, ahoz:

- 
- Norekin egin dut? Zergatik pertsona horrekin?
 - Nolakoa izan da prozesua? Oztoporik/mugarik?
 - Zer sentitu dut (satisfakzioa, frustrazioa, amorrua, poza, ilusioa, zerbait arraroa...)?
 - Lortu al dut hizkuntza-ohitura zertxobait aldatzea?
 - Eman al dit zer pentsatua?
 - Balantzea: positiboa ala negatiboa?

- *"Sormena lagun"*. Kontzientziazio-kanpaina bat ipiniko dugu abian gure ikastetxean. Horretarako, sormena behar-beharrezkoa izango da. Ikasleek diseinatuko dute kanpaina hori, beste jarduera batzuk aztertuta. Helburua ikastetxean euskararen erabilera sustatzea izango da, batez ere atsedendietan, ikasgeletatik kanpora.

Aukera batzuk:

-Pinak, pegatinak, txarteltxoak... diseinatu eta sortu ("Nirekin euskaraz!" bezalako leloekin) eta horiek erabiltzeko aldi bat ipini (adibiderako: Euskaraldia).

-Kate bat sortu sare sozialetan, euskararen aldeko mezuekin (adibiderako: "Ipini pina" katea)

-Ikus-entzunezko txiki bat prestatu (adibidez, ikasleak euskararen aldeko mezuek esaten)

-Egitarau bat prestatu euskararen aldeko jarduerekin: egun batekoa, bi egunekoa, aste batekoa... antzerkia, musika-saioa, jolasak (euskararen ginkana)...

Garrantzitsuena: ikasleak beraiek izatea antolatzaileak (ez irakasleak). Kanpaina/jarduera bukatzean, balantzea eta iritzi-trukea egingo dute prozesuaren inguruan. Ikasle bakoitzak zer egin duen (sortutako materiala erakutsi) eta nola sentitu den kontatuko du.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Hizkuntza-ohiturak aldatzea ez da erraza baina lor daiteke. Hori lortu dutenak edo lortzeko bidean daudenak elkarrizketatzea izango da helburua. Nola lortu dute? Nolakoa izan da prozesua? Zein zailtasun dituzte? Zein satisfakzio? Ikasleak kazetari bihurtuko dira. Euskaltegiara jo dezakete, bertako ikasleek hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesu hori bete-betean bizitzen baitute.



Galdetegia denen artean presta dezakete, eta elkarrizketak banaka edo binaka egin. Elkarrizketa bideoan grabatzea gomendatzen dugu (ikus jarraibide orokorrak), gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkia

ateratzea ere. Ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra, non ezagutu duten...), bideoa (2-5 minutu arteko pasarte bat, aukeratua) erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko.

Jasotakoarekin hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Aukera bat: grabazio guztietako pasarte onenekin ikus-entzunezkoa(k) prestatzea, sare sozialen bidez ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie). Adibide moduan, ikus [Euskara ikasteko prozesua](#) bideoa.

Gero grabazioak [Ahotsak.eus](#) artxibora bideratu ditzakete (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko proiektua](#)).

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, ikus-entzunezkoa... eta, ahal dela, bideoan grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

4. *Gaia*: Euskaraz bizi nahi dut! (Euskara eta aisia)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskaraz-bizi-nahi-dut>

The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. The main content area features a video player with the title 'Euskaraz bizi nahi dut!'. A green arrow points to the video player. To the right of the video player is a metadata table with the following information:

Maiak:	DBH
Proiektuak:	EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Euskara, Aisialdia
Puntuak:	0 puntu 5 izarreko maximotoik
Irizkiak:	0 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

1. Euskaraz bizitzeko hautua: horixe izango dugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatzeke. Gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Posible al da hemen ehuneko ehunean euskaraz bizitzea? Non bai/ez?
- Euskaraz bizi nahi al duzue? Zergatik bai/ez? Eman arrazoiak.
- Lehenengo hitza zer hizkuntzatan egiten duzue normalean?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Esate baterako, euskalkietako hitzak.
3. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zuek bizi izan al duzue bideoan kontatu dituzten esperientzien antzekorik? Kontatu.
- Koherenteak zarete esaten eta egiten duzuenarekin?
- Euskalduna izatea nekagarria dela diote bideoan. Ados zaudete?
- Diferentea da herri txiki batean ala hirietan bizi? Ere mu euskaldunetan eta erdaldunetan?
- Leku batzuetan zailagoa da euskaraz egitea? (Banketxe batean, adibidez)
- Egoera deserosoa al da euskaraz ez dakiela uste duzuen pertsona bati euskaraz egitea? (Beldurrak, konplexuak...)
- Erantzun txarririk jaso al duzue inoiz, euskaraz egiteagatik?

TELP ikastaroaren berri eman; ezagutzen ez badute, zer den eta zertarako den azaldu.



3. Gaiak sakontzeko, bideo hauetakoren bat edo beste ikus daitezke (proposamen pedagogikoak dituzte):

- [Hizkuntza-jarrerak](#)
- [Euskararen erabilera aisialdian](#)
- [Sare sozialak eta euskara](#)
- [Hizkera informala: irainak](#)
- [Hitanoaren erabilera](#)

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- **"Sormena lagun".** Ikus-entzunezkoak prestatu, "Euskaraz bizi nahi dut" leloa gaitzat hartuta. Hiru aukera:

- **Lipdub.** Abesti bat oinarri hartuta, segidan grabatzen den bideoa da lipdub-a, edizio lanik behar ez duena; parte-hartzaileek ibilbide bat osatzen dute eta abestia kantatzen dute. Adibidez: [Gizon arruntaren koplak](#)
- **Flashmob.** Flashmob-aren oinarria, berriz, pertsona talde handi bat leku batean elkartu eta ekintza bat egitea da (ikastetxe osoa inplikatzeko komeni). Adibideak: [Urretxuko Flashmob-a](#), [Leioako flashmob-a](#)
- **Fikziozko film laburra.** 2. mailarako aproposagoa. Adibiderako, ikus [Bazen garaia!](#)

Esne Beltza musika taldearen Euskaraz bizi nahi dut abestia erabil dezakete oinarri moduan (ikus beste bertsio hau ere).

Jarrai daitezkeen pausoak:

- ✓ Ideia ekaitza: Zer egin nahi dugu?
- ✓ Zer, non eta nola grabatu? Gidoia/koreografia asmatu, lekuak aukeratu, rolak banatu, kartelak prestatu...
- ✓ Grabaketak egin. Lipbub-a egiteko, bozgorailu indartsua eraman, abestia ondo entzun dadin (eta ahoak eta mugimenduak abestiarekin bat etor daitezzen).
- ✓ Bideoa editatu: grabazio zatiak elkartu, musika sartu, letrak ipini, izenburua...
- ✓ Behin betiko bideoa ikusi ikasgelan eta iritzi-trukea egin.
- ✓ Bideoa sare sozialen bidez zabaldu.



- *"Za zea elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari lanetan arituko dira, eta euskaraz bizi nahi duen jendea elkarrizketatuko dute (2. mailarako aproposagoa 1. mailarako baino). Helburua: erreportaje laburrak egitea. Ikusi dugun bideoaren estilokoak izan daitezke (testigantzez osatuak), edo, elkarrizketatuz gainera, elkarrizketatzailea, giroa eta lekuak ere ager daitezke (adibiderako, ikus Iparraldean euskaraz).

Galderak denen artean prestatu, eta elkarrizketak bideoan grabatzea gomendatzen dugu (grabazioak egiteko, ikus jarraibideak). Aukera bat: gero

grabazioak Ahotsak.eus artxibora bideratzea (adibiderako, ikus: [Donostiako ikastetxea](#) eta [Lekarozko institutua](#)).

Jarduera hau binaka edo hirunaka egin daiteke. Hona hemen gidalerro posible batzuk:

- *Taldetxo bakoitzak pertsona bat elkarrizketatuko du. Ondoren, pasarte onenak aukeratu, eta gutxieneko edizioa egingo du (moztu eta elkarren segidan ipini).*
- *Prestatutakoa ikaskideei erakutsi (ahozko aurkezpen txiki bat eginez: nor elkarrizketatu duten, zergatik, prozesua nolakoa izan den eta zer izan den jaso duten interesagriena eta zergatik).*
- *Pasarte onenak aukeratuko dituzte (guztien artean), grabazio guztiekin ikus-entzunezko bakarra egiteko (bat baino gehiago egitea ere erabaki dezakete).*
- *Behin betiko ikus-entzunezkoa(k) prestatuko dute/dituzte, edizio-lan handiagoa eginez (lan hori gustura egiten duen taldetxo bat arduratu daiteke edizio-lanaz): izenburua, elkarrizketatuen izen-abizenak, bukaerako letrak...*
- *Behin betiko emaitza ikasgelan ikusi, eta iritzi-trukea egin ostean (eta hala erabakiz gero aldaketak eginda), sare sozialetan zabalduko da.*

- *"Historia egiten".* Nondik gatozen jakitea garrantzitsua da nora joan nahi dugun jakiteko. Euskararen historia ikertuko dute ikasleek, gaur egungo egoera soziolinguistikoa hobeto ulertzeko. Hainbat dira jorra ditzaketen gaiak. Esate baterako:

Antzinako historia:

-Noiztik hitz egiten da euskaraz?

-Ba al du seniderik? Euskara beste hizkuntza batzuekin lotzen duten teoriak

-Non hitz egiten zen? Eta gaur egun? Bilakaera aztertu

Historia hurbila:

-Frankismo garaiko zapalkuntza

-Euskararen aldeko mugimenduak eta lanak:

hezkuntza, aisialdia, komunikabideak, euskaltegiak...



Talde txikietan egiteko moduko jarduera da. Informazio-bilketa egin ostean, ahozko aurkezpen bat egitea proposatzen dugu, horretarako teknologia berriak erabilia (adibidez: Prezzi).

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: aurkezpena, ikus-entzunezkoa... eta, ahal dela, bideoan grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: ahozkoaren ezaugarriak eta baliabideak.

5. *Gaia*: Sare sozialak eta euskara (Euskara eta aisia)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/sare-sozialak-eta-euskara>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there is a navigation bar with buttons for 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main content area features a video player titled 'Sare sozialak eta euskara' with a play button. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

- Mailak: DBH
- Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak: Euskara eta literatura
- Gaiak: Euskara, Aisialdia, Teknologia

Below the metadata box, there is a small section with the text 'Zer nolako pisua du teknologia berriek gaur egungo gizarteetan? Zer hizkuntzatan erabiltzen ditugu? Euskarak sare sozialetan eta teknologia berriak erabiltzeko presentziari buruzkoa da bideo hau.'

Bideoa ikusi aurretik

1. Sare sozialei buruz hitz egingo dugu, aurre-ezagutzak aktibatzeko. Gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Zer sare sozial erabiltzen dituzue? Izendatu eta bakoitza zertarako erabiltzen den azaldu.
- Zerrenda osatu. Zein erabiltzen dira gehien?
- Zenbat denbora pasatzen duzue sare sozialetan egunero? Erantzunekin batez bestekoa atera.
- Zer hizkuntza darabilzue sare sozialetan? Norekin eta zertarako euskara/erdara?
- Teknologia berriak euskaraz erabiltzeko aukerarik baduzue?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Esate baterako, euskalkietako hitzak: *solasteko* (hitz egiteko), *dauz* (daude), *dozuz* (dituzu), *dekot/dakat* (daukat), *dotsat* (diot), *aunitz* (asko), *soberakina* (gehiegizkoa), *gira* (gara)...
3. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

-Zuek erabiltzen dituzuen sare sozialak bideoan aipatzen direnak al dira? Erabiltzen duzue besterik?

-Gaizki-ulertuak eta haserreak aipatu dituzte. Zuek izan al duzue halakorik?

-Zuen ustez, euskara nahikoa erabiltzen al da sare sozialetan? Erabiltzen al dituzue euskarazko app-ak? (Adibidez, Egunean Behin)

-Zer hizkuntzatan daukazue eskuko telefonoak? Zergatik?

-Zenbaterainokoa da erdaren eragina sare sozialetan? (Youtuber, fake news, trending topic...)

-Zuen ustez, ahaleginik egin beharko al genuke teknologia berrietan euskara erabiltzeko? Zergatik?

3. Euskaraz komunikatzeko mugarik ba al dugu (erregistro falta, ohitura falta, erakargarritasun falta...)? Euskarak ba al dauka erregistro informalik? Gazte-hizkerari buruzko hausnarketak eta jarduerak egin nahi izanez gero, hiru bideo hauek ikus daitezke (ikus bideo horien proposamen pedagogikoak ere):

- Hizkera informala: irainak
- Hitanoaren erabilera
- Euskararen erabilera aisialdian

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkotzat bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Historia egiten"*. Bideoan sare sozialen abantaila eta desabantaila batzuk aipatzen dituzte. Gai horri buruzko eztabaida formalak egingo ditugu. Norberaren iritziak defendatzeko argudioak emateaz gainera, gainerakoen iritziak ulertzea eta errespetatzea izango da helburua, eta malgutasuna erakustea.

Horretarako, lehenengo eta behin, taula hau bete dezakegu guztion artean:

ABANTAILAK	DESABANTAILAK

Ondoren, eztabaida txikiak egingo ditugu (10-15 minutukoak), 6-8 pertsonako taldeetan jarrita:

-A taldekoak (2-3 pertsona): Sare sozialak defendatuko dituzte, erabilera-mugarik gabe. Abantailak nabarmenduko dituzte.

-B taldekoak (2-3 pertsona): Erabilera mugatzearen alde agertuko dira. Desabantailak azpimarratuko dituzte.

-Moderatzaileak (2 pertsona): Moderatzaile batek aurkezpenak (A eta B) eta galderak egingo ditu. Besteak txandak eta hitz egiteko denborak errespetatzen direla ziurtatuko du.



Estilo honetako galderak izan daitezke:

- ✓ A taldekoekin hasiko gara. Sare sozialen defendatzaile sutsuak zarete zuek. Sare sozialak inoizko asmakuntzarik onena direla diozue. Eman zuen argudioak.
- ✓ Horren aurrean, B taldekoek ba al duzue ezer esatekorik?
- ✓ B taldekoak sare sozialak mugatzearen alde zaudete. Gehiegizkoa iruditzen zaizue. Zergatik? Eta nola egin daiteke hori?
- ✓ A taldekoek zer iritzi duzue B taldekoek esan dutenari buruz?
- ✓ Egia al da sare sozialek menpekotasuna sortzen dutela?
- ✓ Osasunaren aldetik kalterik ekar al dezakete?
- ✓ Lagungarri al dira komunikatzeko garaiak? Zer alde on eta zer alde txar ikusten dituzue?

Hasi aurretik, eztabaidatzeko garaiak kontuan hartu beharreko irizpideak aletu ditzakegu (adibidez, [baliabideak](#)). Taldeetan rolak banatzeko, zotz egin daiteke. Taldetxoak elkarrengandik aparte jarriko dira, lasai eztabaidatu ahal izateko. Aukera bat: gela diferenteetan jartzea.

Ondo legoke eztabaidak bideoan grabatzea, gero guztiek batera ikusi eta baloratu ahal izateko (eduki aldetik ez ezik, baita ahozko komunikazioaren ikuspegitik ere):

ikasleek berek erabaki dezatela zer eta nola hobetu dezaketen. Aurre-testu bezala balio dezakete, hurrengo eztabaida egiten dutenean biak konparatu ahal izateko.

- *"Sormena lagun"*. Bideo laburrak sortzea izango da erronka, sare sozialetan euskara naturaltasunez erabiltzeko. 2-3 ikasleko taldeetan egin dezakete (edizio-programak erabiltzen ez badakite, oinarrizkoa erakutsi). Hona hemen hiru proposamen, aukeran:

1. Esamoldeak. Euskarazko esamoldeekin jolastuz, 20 segundu arteko umorezko bideoak sortzea, Instagram-erako. Egunerokoan erabiltzen diren esamoldeak izan daitezke edo ez hain ezagunak (esamoldeak aukeratzeko, ikus [gazte-hiztegia](#) ere). Adibide gisa, ikus [Botaba Lehiaketa](#)-rako prestatutako lanak: [Aker usaina egon](#) (=usain txarra egon) eta [zakutik hartzen joan](#) (=joan pikutara).

2. Iragarkiak. Euskarazko iragarkiak sortzea, 20-30 segundu bitartekoak. Ikus [Euspot lehiaketako](#) adibide batzuk (urtero gai bat dago): [Sare sozialak](#), [Mugimendua](#), [Piztu bizitza](#), [Gaztetu](#).

3. Film laburrak. Fikziozko bideoak sortzea, 1-3 minutu bitartekoak. Gaia denen artean aukeratu dezakete. Film laburren hainbat lehiaketa daude, eta inspirazio-iturri gisa erabil ditzakegu. Hona hemen hiru adibide: [Gaztezuloko bideo-lehiaketa](#), [TiTau!](#) eta [Biminutuluze](#).



Helburua ez da lehiaketetan parte hartzea, baina aukera horrek ikasleak animatu egin ditzake. Beraz, martxan dauden lehiaketak zein diren aztertu, eta horiei begira egin ditzakete lanak. Beste aukera bat: lehiaketa ikastetxean

bertan sortzea (oinarriak eta arauak ikasleek adostuta; sariak herriko dende emandakoak izan daitezke).

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Bideo laburrak sortzea da asmoa, sare sozialetan zabaltzeko, baina kasu honetan ikasleak kazetari bihurtuko dira. Erreportaje estilokoak izango dira bideoak (ikusi dugun bideoaren antzekoak izan daitezke edo beste molde batekoak).

Sare sozialei buruzko iritziak jasoko dituzte, gazteak elkarrizketatuta. Banaka edo binaka egiteko moduko jarduera da. Galdetegiak gelan presta ditzakete guztien artean.



Elkarrizketak egin aurretik, ikus [jarraibide orokorrak](#). Egindako grabazioak editatu egingo dituzte (emaitza 5 minututik beherakoa izango da), eta gero ikaskideei erakutsi, ahozko aurkezpen txikiak eginez. Aurkezpena egiteko jarrai ditzaketen puntuak:

- Elkarrizketatua(k) nor d(ir)en azaldu
- Grabazio- eta edizio-prozesua nolakoa izan den (anekdotak, zailtasunak...) esan
- Bideoaren helburua zein den (informazioa ematea, iritzia ematea, kritika egitea...) argitu
- Bideoa ipini
- Ikaskideen galderei erantzun

Aukeratutako bideoak (guztiak izan daitezke edo batzuk) sare sozialetan jar ditzakete. Aukera bat: gero grabazioak [Ahotsak.eus](#) artxibora bideratzea (adibiderako, ikus: [Donostiako ikastetxea](#) eta [Lekarozko institutua](#)).

5. Ekoizpena partekatzea. Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: eztabaida, ikus-entzunezkoa... eta, ahal dela, bideoan grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: ahozkoaren ezaugarriak eta baliabideak.

6. *Gaia*: Irakurzaletasuna eta euskara (Euskara eta aisia)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/irakurzaletasuna-eta-euskara>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there is a navigation bar with buttons for 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. Below this, the main heading is 'Irakurzaletasuna eta euskara'. A video player is embedded, showing a young man and woman. To the right of the video, there is a metadata box with the following information:

- Mailak: DBH
- Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak: Euskara eta literatura
- Gaiak: Euskara, Aisialdia

Below the metadata box, there is a progress bar and the text '0 iritzi guztira'.

66

Bideoa ikusi aurretik

1. Irakurzaletasuna izango da jorratuko dugun gaia, aurre-ezagutzak aktibatzen. Gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Irakurzaletasuna zuretzat? Hala bada: nola zaletu zineten? Bestela: zaletzeko aukerarik ikusten duzue? Nola?
- Nolako libururuak gustatzen zaizkizue? Zer genero (intriga, fikzioa, drama, umorea...) eta estilotakoak (sakonak, arinak...)?
- Aipatu gustuko libururuak. Zer dute erakargarri? (istorioa, idazteko modua...)

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Esate baterako, euskalkietako hitzak.
3. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

67

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Ados zaudete bideoan esandako gauzekin (zerekin bai/ez)?
- Egin duzue negarrik edo barre-algararik liburu bat irakurtzen? Zer ematen dizue literaturak zuei?
- Zer iritzi duzue eskolarako irakurri beharreko liburuei buruz?
- Literatura "ona" eta "deskafeinatua" aipatzen ditu uxue Alberdi idazleak. Ados zaudete?
- Zuen ustez, zer egin daiteke irakurzaletasuna bultzatzeko?
- Zuei errazago egiten zaizue erdaraz irakurtzea euskaraz baino? Hala bada, zergatik?
- Egia da euskaraz ez dagoela liburu-aukera zabalik, edo ezagutza falta da?

3. Gazteen aisialdiko hizkuntza-jarrerei buruz hausnartzen jarraitzeko, beste bi bideo hauek ere ikus daitezke:

- *Sare sozialak eta euskara*
- *Euskararen erabilera aisialdian*

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.
- *"Eman iritzia"*. Ikasleak *booktuber* bilakatuko dira. Euskarazko liburuei buruzko iritzia emango dute, Youtube-n zintzilikatzeko egingo dituzten bideo laburren bitartez (minutu eta erdi artekoak). Zer egin behar dute?

- Liburu bat aukeratu eta irakurri
- Idazlea nor den esan
- Liburuan zer kontatzen den azaldu
- Iritzia eman, zer gustatu zaizun eta zer ez adieraziz

Ikus [Booktuberboom](#) lehiaketarako prestatutako bideo batzuk. Adibiderako: [Sara izeneko gizona](#), [Atlas sentimentala](#), [Beti oporretan](#), [Behi euskaldun baten memoriak](#), [Bilbao-New York-Bilbao](#), [Gose jokoak](#), [Nola heldu naiz ni honaino](#).

- *"Bestearen azalean"*. Irakurketa ozena egingo dugu eta, horretarako, narratzailearen eta liburuetakoa pertsonaien azalean sartuko gara.

1. Lehenengo, ahots diferenteak lantzeko **jolasak** egin ditzakegu. Izan ere, izaeraren eta tamainaren arabera, ahotsa asko alda daiteke. Esterotipoekin jolastuko dugu, hitz egiteko modu markatuekin.

-Animaliak: otsoa, inurria, hartza...


-Pertsonaiak: sorgina, basajauna, iratxo...

-Pertsonak: ume txikia, adinekoa, makarra, pijo...

Bideo-pasarte honetan Joxe Mari Karrera ipuin-kontalariak pertsonaiak eraikitzeke orduan euskarak dituen mugak aipatzen ditu: Estandarren falta.


2. Ondoren, **gustuko ipuin labur** bat aukeratuko dugu. Ikasle bakoitzak berea (binaka ere egin daiteke, eta rolak banatu: bat narratzailea izan daiteke eta besteak pertsonaien ahotsak egin ditzake).

3. **Irakurketa ozen egiteko prestaketak** egingo ditugu. Hona hemen Pako Eizagirrenen aholkuak: Testua ondo ezagutzea komeni. Ikus Eizagirrek prestatutako ipuinak, Aittu webgunean; adibiderako, Ka-kardantxilo.
 - Pertsonaiak aztertu eta pertsonaien ahotsak erabaki (denek ez daukate ahoskera berezia izan beharrik).
 - Erritmo-aldaketak eta tonua erabakitzeko probak egin (eredu batzuk ikusita).
 - Pausak, isiltasunak noiz egin erabaki, eta testuan markatu.
4. **Ipuina ozen irakurri**, eta ahotsa grabatuko dugu.
5. **Grabazioa bideo bihurtu**, edizio-lanak eginda. Ipuinari musika eta irudiak jarriko dizkiogu. Marrazkiak ipuin-liburuetatik har daitezke (bukaerako letretan jatorria adierazita) edo, bestela, nork bere marrazkiak egin ditzake.
6. **Azken emaitza** ikaskideekin partekatu. Bideo guztiekin emanaldia egingo dugu.




- *"Sormena lagun"*. Uxue Alberdik bideoan proposatzen duen ariketa egingo dugu: obsesioen bilduma literario bat.

Abiapuntu gisa, Alaine Agirreren *Ixa hil da* liburuko pasarte batzuk irakur ditzakegu (etxean egin daiteke edo ikasgelan bertan, denon artean). Lan-prozesuaren pauso posibleak:

- 
- ✓ 10 esaldi idatzi, ahalik eta literarioenak, grazia daukatenak, norberaren obsesioei buruz
 - ✓ Ikaskideekin partekatu: idatzitakoa irakurri
 - ✓ 2-3 gustukoenak aukeratu
 - ✓ Esaldien irakurketa ozena egin. Esaldiak nola irakurri entsegatu (tonu eta erritmo egokiarekin irakurtzeko)
 - ✓ Izenburua asmatu
 - ✓ Grabaketak egin (izenburua eta obsesioak)
 - ✓ Edizio-lana egin, esaldi guztiak bateratu eta obsesioz betetako bilduma osatzeko. Eta musika sartu!

Lanketaren jarraitzeko ideia batzuk:

- 
- ✓ A aukera: Emaitza CD batean grabatu (eta CDaren azala egin)
 - ✓ B aukera: Bideo bihurtu (azalaz gainera, argazkiak eta marrazkiak erabili; norberak egindakoak izan daitezke edo beste iturri batzuetatik hartutakoak: kasu horretan iturriak adierazi, bukaerako letretan)
 - ✓ Grabazioa entzun/ikusitako gelan. Prozesuaren eta emaitzaren gaineko iritzi-trukea egin
 - ✓ Grabazioa sare sozialetan ipini

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: aurkezpena, ikus-entzunezkoa, irakurketa ozena... eta, ahal dela, bideoan grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea.

7. *Gaia*: Euskara eta zentsura (Euskararen historia)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskara-eta-zentsura>

The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. The navigation bar includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main content area is titled 'Euskara eta zentsura' and contains a video player with a play button. A green arrow points to the video player. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

- Maiak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Euskara eta literatura
- Gaiak:** Oroimen historikoa, Euskara
- 0 iritzi guztira**

71

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Frankismo garaiko zentsura izango dugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatzeke, gisa honetako galderen bitartez:

- Zer da zentsura/zentsuratzea (informazio publikoa kontrolatu eta ezabatzea)? Eta autozentsura?
- Noiz urratzen da adierazpen-askatasuna eta nola?
- Ezagutzen duzue informazioa edo hizkuntza bat zentsuratua izan den kasurik? Zer gertatu zen eta noiz? Eman azalpenak eta iritziak.
- Zuen gurasoek zuen adina zutenean, ba al zegoen euskarazko hedabiderik? Eta aitona-amonen sasoian?
- Nolakoa zen euskararen egoera frankismoan?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, *alcahuete* (kontakatilua), *txibatoa* (salataria), NO-DO, partea, azpijana...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Ezerk harritu al zaituzte? Eman iritzia eta ezagutzen dituzuen antzeko beste egoera batzuk aipatu.
- Zer zen NO-DOa (Francoren erregimenaren propaganda egiteko erreportaje-sorta, zinemaren pelikulen aurretik ematen zutena)? Eta partea (erregimenaren propaganda, irratiari)? Gaur egun, ba al dago parterik edo antzekorik (gabonetako erregearen mezua)?
- Noiz arte iraun zuen frankismoko zentsurak? Zer urtetan legezatu zuten ikurriña?
- Zer da klandestinoak? Gaur egun, ezagutzen duzue modu klandestinoan egiten den gauzarik (legea bete gabe)?
- Ezagutzen dituzue bideoan aipatzen dituzten kantariak eta bertsolariak? Euskal kantagintza berria bideoa ikus daiteke, testuinguruaz jabetzeko.
- Nor zen Dolores Ibarruri 'Pasionaria'? Nor zen Telesforo Monzon? Eta nor Aita Altuna (Patxi Altuna) jesuita? Ez baldin badakizue, sarean bilatu.
- Bideoan aipatzen dutenez, dena zegoen kontrolpean: argitalpenak, irratiak, antzokiak, bertso-saioak, kantaldiak, baita elizak eta frontoiak ere. Gaur egun ba al dago nolabaiteko kontrolik (sare sozialetan, adibidez)?

3. Franco Donostian bideoa ikusi, haren bisitek hiria nola eraldatzen zuten ezagutzeko. Nahi izanez gero, frankismo garaian ezarri zituzten beste neurri batzuk ere azter ditzakegu:

- Neurri ekonomikoak: errazionamendua, errotak, kupoa, abereak hiltzeko debekua
- Emakumearen kontrako neurriak: lantegitik etxera bidaltzea, Zerbitzu Soziala
- Euskararen kontrako neurriak: euskararen zapalkuntza, ikastola klandestinoak

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkotzat bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, ahozko ondasunaren biltzaile. Talde txikietan banatu (2-3 kide), eta talde bakoitzak adineko euskaldunen bati (amona, aitona, bizilaguna, familiako ezaguna...) elkarrizketa egingo dio, eta bere esperientzia kontatzeko eskatu: zentsura ezagutu duen –zineman, komunikabideetan, argitalpenetan...–, euskaraz hitz egiteko/idazteko/irakurtzeko oztoporik izan duen sekula, frankismoko giroa...). Galderak guztien artean prestatuko dituzte, guztiek antzeko kontuak galdetzeko.



Elkarrizketa bideoan grabatzea gomendatzen dugu (ikus jarraibide orokorrak), gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere. Ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren

biografia laburra, adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.), bideoa erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko.

Jasotakoarekin hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Aukera bat: grabazio guztietako pasarte onenekin ikus-entzunezkoa(k) prestatzea, sare sozialen bidez ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie).

Ederra litzateke gero grabazioak Ahotsak.eus artxibora bideratzea (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko proiektua](#)).

· *"Gaur egunera begira"*. Gaur egun ba al dago zentsurarik komunikabideetan? Eta adierazpen-askatasunaren urraketarik (Euskal Herrian, munduan...)? Ikasleak ikertzaile bihurtuko dira, kazetari, eta talde txikietan batuta, informazioa bilduko dute. Azter ditzaketen gaietako batzuk:

- ✓ Zentsuratutako irudiak eta idatziak, besteak beste, sare sozialetan (adibidez, [Instagram-eko](#) hau) eta jaietan ([Bilboko txosnetan gertatua](#), esaterako). Adibide gisa ikus [Galiziako](#) eta [Palestinako](#) kasu hauek ere.
- ✓ Letrak, kontzertuak edo arte-lanak zentsuratu dizkieten musika-taldeen eta artisten kasuak (adibidez, [Abel Azkona](#)).
- ✓ Komunikabideetako kasuak. [Herritarren Segurtasunerako Legea](#): Mozal legea (lege hori aplikatu zaien bi komunikabide: [Hala Bedi](#) eta [Argia](#)).



Ikasleek batutako informazioaren berri emango diete ikaskideei, ahozko aurkezpenak eginez: kasuaren berri eman eta euren iritzia azaldu. Ondoren, eztabaidatu eta iritzia trukatu daiteke (betiere pentsaera politiko guztiak errespetatuz).

- *"Historia egiten"*. Lehenaldira joko dugu, bideoan aipatzen diren hariei tiraka. Adierazpen-askatasunaren urraketak eta zentsura-kasuak aztertuko dituzte ikasleek. Frankismo garaiko giroa eta gertaerak azter ditzakete eta baita ondorengoak ere. Esate baterako:

-Euskarazko liburugintza frankismoan. Joan Mari Torrealdairen Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983 (2000, Susa) liburuan datozen kasuak

-Irratigintza frankismoan. Zein ziren sasoi bateko irrati klandestinoak? Nondik emititzen zuten? *Pirenaica, Euzkadi...* irratiaren historia.

-Gerra garaiko eta gerraosteko euskarazko egunkari eta aldizkariak: *Eguna, Euzko Deya, Eskualduna, Herria, Euzko Gogo, Zeruko Argia, Jakin...*

-Hedabideen itxiera: *Egin* (1998), *Euskaldunon Egunkaria* (2003)...

Talde txikietan egin dezakete lana, eta gero ikasgelan partekatu, ahozko aurkezpenen bidez. Ondoren, guztien artean informazio interesgarriena aukeratu dezakete, eta horrekin irratsaio bat prestatu, ikasleak narratzaile edo irrati-esatari bihurtuta. Sustatuko duguna: herriko hizkera erabiltzea, naturaltasunez eta adierazkortasunez. Adibide gisa, ikus [Leitzako irratsaio hau](#).



5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, aurkezpena, bideoz jasotako adierazpena... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

8. Gaia: Elbira Zipitria (Euskararen historia)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/elbira-zipitria>

ahotsak IKASGELAN

Sarrera Honi buruz **Materia** Euskalkitegia

Elbira Zipitria andereñoa

Gerraosteko ikastolen aitzindaria izan zen Zipitria andereñoa. Ikastola klandestinoak ipini zuen bere etxean eta andereño-sarea sortu zuen. Haren bizitza argi-lurra ezagutuko ditugu.

Elbira Zipitria, ikastolen aitzindaria

Ver más tarde Compartir

MARI KARMEN MITXELENA (Andereño)
Usurbil, 1938

Mailak: DBH

Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan

Ikasgaiak: Euskara eta literatura

Gaiak: Lanbideak, Euskara

0 puntu 5 izarreko maximitik

0 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

1. Elbira Zipitria andereñoa, horixe da aurre-ezagutzak aktibatzeko erabiliko dugun gaia. Gisa honetako galderen bitartez egin dezakegu:

- Badakizue nor zen Elbira Zipitria? Zergatik da ezaguna? Zer egin zuen?
- Badaukazue ikastola klandestinoen berri? Noiz, nola eta zergatik sortu ziren?
- Nolakoa zen euskararen egoera gerra aurrean? Eta gerraostean?
- Noizkoa da euskarazko irakaskuntza? Zer bilakaera izan du?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu.
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

-Bideoa ikusita, zer iritzi daukazue Elbira Zípitriari buruz?
-Andereño-sarea sortu zuen. Hemen, gure herrian, izan al zen ikastola klandestinoetan ibilitako andereñorik?
-Metodologia berritzailea erabiltzen zuen, "bizi-bizia" eta norbanakoari egokitua. Gaur egun, nolako metodologia erabiltzen da ikastetxeetan?
-Umeei 100 abesti baino gehiago ikasten zituzten. Zer abesti ikasi dituzue zuek eskolan? Zer gairekin lotuta?
-Zergatik izan zen hain traumatikoa Elbirarentzat euskara batuaren sorrera?
-Zuen ustez, errekonozimendu aski edukí al zuen Elbirak bizi izan zen artean?




Elbira ezagutu zutenek pertsona berezia zela diote: irakasle aparta baina traturako zaila, zorrotza eta jenio bizikoa. Zipitriaren azken urteak ilunak izan ziren: bere baitara bildu zen, munduarekin haserre. Bideoan bi arrazoi aipatzen dituzte:

1. Ikastolen legeztatzea > sistema aldaketa (lekua, ikasle kopurua, metodologia, gauzak egiteko modua...) > botere-galera (boterea gurasoen esku)
2. Euskara batuaren sorrera (pentsamendu politikoa) > Ikus *Euskara batua eta euskalkiak* bideoa

Beste arrazoi bat ere aipa daiteke, sistema-aldaketarekin lotura duena. Metodologia aldetik oso berritzailea izan arren, tradizionalista zen Elbira (Jainkoa, Euskara eta Lege Zaharra): oso fededuna zen, eta ikastola batzuetan gurasoek eta irakasleek hezkuntza laikoaren aldeko apustua egin zuten.

3. *Gerraosteko ikastola klandestinoak* bideoa ikusi, isilpeko ikastolei buruz gehiago jakiteko. Nahi izanez gero, frankismo garaian euskararen egoera nolakoa zen erakusten duten bideo hauek ere ikus ditzakegu: *Euskara eta zentsura*, *Euskararen kontrako neurriak* eta *Gerraostea: euskararen zapalkuntza*. Ondoren, iritzi-trukea egin daiteke.
 4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete, edo ordezkari bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.
- *"Sormena lagax"*. Elbira Zipitriak utzitako aztarnak jarraituko ditugu, haren lorratzak topatu gaur egungo Donostian. Horretarako, *Zipitriaren ibilbidea* egitea proposatzen

dugu: hura ibili zen tokietara joatea, alegia. Ibilbideak 6 geraleku ditu, denak ere Parte Zaharrean.



Lehenengo, ibilbidea gelan bertan ikus eta azter dezakegu (azalpenak, argazkiak eta bideoak). Eta ondoren, txangoa egin; orduan, ikasleak izango dira ibilbide gidatuaren arduradunak. Ikasleek emango dituzte azalpenak. 3-5 pertsonako taldeak osatu, eta talde bakoitzari ibilbideko puntu bat egokituko zaio.

Azalpenak emateko, [Zipitriaren ibilbidea](#) har dezakete abiapuntu moduan, hor aipatzen diren datuak eta informazioa. Hori bai, sormena erabiltzera eta ibilbide gidatu ahalik eta originalena egitera animatuko ditugu (bertsoak, kanta, antzezlan txikiak... umez/irakaslez mozorrotu daitezke...). Adibidez: “Ardi galduak” abestia kantatuz eta eskutik helduta egitea Gaztelurako bidea, Zipitriak erritualak egiten zituen tokietan ([Guardetxea](#) eta [Baluarteko begiratokia](#)) antzezlanak egitea...

Ibilbide gidatua bideoan grabatzea gomendatzen dugu. Grabatutakoa ikasgelan ikus dezakegu, eta iritzi-trukea egin. Aukera bat: editatu eta sare sozialetan zabaltzea (Ahotsak-era bidaliz gero, fitxa honetan adibide moduan ipin dezakegu).

- *“Historia egitea”*. Emakumeen lanak isilpean geratzen dira askotan, ez ditugu ezagutzen. Dokumentatu, eta aitzindariak izan diren beste emakume batzuen berri ekarri ikasgelara. Adibiderako:

- Beste andereño batzuk
- Herrian/eskualdean alorren batean nabarmendu diren emakumeak: margolariak, idazleak, kirolariak, euskaltzaleak, sukaldariak, dendariak...

Besteak beste, dokumentazio-iturri gisa Ahotsak.eus proiekturako grabatutako testigantzak erabil ditzakete. Hona hemen Ahotsak-erako elkarrizketatutako andereñoetako batzuk:

<u>Karmele Esnal</u>	<u>Miren Egaña</u>	<u>Kontxita Beitia</u>
<u>Mari Karmen Mitxelena</u>	<u>Itziar Arzelus</u>	<u>Amale Arzelus</u>
<u>Miren Josune Tolaretxipi</u>	<u>Eulalia Aranburu</u>	<u>Itziar Ajuria</u>
<u>Tere Bakedano</u>	<u>Maria Jesus Otaegi</u>	<u>Maria Dolores Leunda</u>
<u>Jesusa Aranguren</u>	<u>Juani Urkizu</u>	<u>Pepi Gorostidi</u>



Maria Dolores Goia andereñoa

Ikasleek aurkezpen txiki bat egingo dute bildutako informazioarekin.

- Nor da ikertu dudana emakumea?
- Biografia laburra azaldu: ibilbidea
- Informazio gehiago (bideo-pasarte bat erakutsi, hari buruzko erreportajeak/liburuak/dokumentuak aipatu, argazkiak...)
- Iritzia eman

Aztertutako emakume aitzindariari buruzko informazioa ikastetxean zabaltzeko, hauxe aukera bat: kartelak egin emakumeen izen-abizenekin eta biografia laburrekin (argazkia izanez gero, argazkia ere jar daiteke), eta ikastetxean zehar ipini.

- *"Zu zea elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, herriko historiaren biltzaile. Herrian aitzindari izandako emakume bat (edo bi) gelara gonbidatu, eta elkarrizketa egingo diote. Galderak guztien artean prestatuko dituzte.

Elkarrizketa bideoan grabatzea gomendatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)), gerora ere erabili ahal izateko, eta komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere. Jasotakoarekin hainbat lanketa egin daitezke taldeka:

1. *Elkarrizketa idatziz jarri, eta argitaratzeko moduan ipintzea (titulu nagusia, azpititulua, sarreratxoak, galde-erantzunak, argazkia, argazki-oina...)*
2. *Grabazioa editatu eta elkarrizketatuaren pasarte onenekin ikus-entzunezko bat sortzea, sare sozialen bidez ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie). Ikasleek off-eko ahotsa grabatu dezakete eta sasoi bateko argazkiak ere erabil ditzakete (elkarrizketatuari eskatu, gonbidatzerakoan).*
3. *Elkarrizketatuaren testigantza erabiliz eta ikasleek narratzaile lana eginez (ahotsak grabatu), irratsaio bat sortzea, herrian euskarazko irakaskuntzaren historia zein izan den azaltzeko. Musika eta soinu-efektuak ere erabil daitezke. Sustatuko duguna: herriko hizkera erabiltzea, naturaltasunez jardutea eta adierazkortasuna lortzea. Adibide gisa, ikus [Leitzako irratsaio hau](#).*

Aukera bat: gero grabazioak [Ahotsak.eus](#) artxibora bideratzea (adibiderako, ikus: [Donostiako ikastetxea](#) eta [Lekarozko institutua](#)).

Adibide batzuk: [Eli Pagola bertsolaria](#) (LH3-ko ikasleek egindakoa) eta [Aitor Ruiz de Egin](#) artista (LH5eko ikasleek egin).

1. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, ibilbide gidatua, aurkezpena, ikus-entzunezkoa... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

9. *Gaia*: Maria Dolores Agirre (Euskararen historia)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/maria-dolores-agirre>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there is a navigation bar with buttons for 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main content area features a video player titled 'Maria Dolores Agirre eta antzerkia'. The video player shows a woman speaking, with a play button overlay. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIIIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Euskara eta literatura
- Gaiak:** Euskara, Antzerkia

Below the metadata box, there are two lines of text: '0 puntu 5 izarreko maximoik' and '0 iritzi guztira'.

Bideoa ikusi aurretik

1. Maria Dolores Agirre antzerki-zuzendaria izango dugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderen eta azalpenen bitartez:

- Zer dakizue euskarazko antzerkigintzaren historiari buruz?
- Nor izan zen Maria Dolores Agirre? Zer egin zuen?
- Ezaguna egiten al zaizue Donostiako Euskal Iztundea antzerki eskola?
- Nolakoak ziren gerra aurreko eta gerraosteko lehen urteetako antzezlanak?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu.
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Bideoa ikusita, zer iritzi duzue Maria Dolores Agirrerri buruz?
- Zer egin zaizue deigarriena? Zer nabarmenduko zenukete?
- Magisteritza ikasketak egin zituen lehenengotako emakumea izan zen. Nolakoa zen emakumearen egoera gerraostean?
- Antzerkia, irakaskuntza, irratigintza eta itzulpengintza. Hainbat alorretan aritu zen Maria Dolores, euskararen alde betiere. Zein zen euskararen egoera garai hartan?
- Zer nolako garrantzia zeukan antzerkiak gizartean (telebistarik ez, filmak ere gutxi, Internetik ez...)?
- Donostian antzerki-mugimendu handia egon zen. Euskal Izkondeaz gainera, bazen euskarazko beste talderik?

Testuinguruaz hobeto jabetzeko *Gerraosteko antzerkiqintza: tradizioa vs modernotasuna* bideoa ikus dezakegu.

3. Maria Doloresek ez zuen aldarri feministarik egiten: ez zitzaion iruditzen ezer berezirik egin zuenik. Alabaina, emakumeen jarduna oso mugatuta zegoen garai hartan: ez zen ohikoa emakumeek goi mailako ikasketak egitea, eta are gutxiago emakumeak zuzendari karguetan ikustea. Sakontzeko, bi bideo hauek ikus daitezke, bertan ederki azaltzen baitituzte emakumeak kate motzean lotzeko hartutako neurriak:

- *Emakumeak lantegitik etxera*
- *Zerbitzu Soziala emakumeentzat*



Maria Dolores Agirre

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Bestearen azalean"*. Maria Doloresi omen egiteko modu onena antzerkia egitea eta antzezten ondo pasatzea da. Aukera bat: taldetxoetan banatu (2-3 lagun), eta antzerki-esketx laburrak sortzea (5 minutu bitartekoak).

1. *Gai bat aukeratu (adibidez: egoera deserosoak/barregarriak)*
2. *Egoera bat pentsatu (adibideak: Komunean, papera bukatu da; Puzker-usaina dago: nor izan da?; Ez da ausartzen gurasoei egia esaten)*
3. *Pertsonaiak zehaztu (adina, izaera, jarrera eta janzkera)*
4. *Gidoia idatzi (lekuak, elkarrizketak eta ekintzak)*
5. *Gidoia ikasi eta entsegatu (erabiliko diren objektuak eta atrezzoak aukeratu, eta mugimenduak/keinuak zehazten joan)*
6. *Ikaskideen aurrean antzeztu*

Antzerki-esketxak bideoz grabatzea proposatzen dugu, gero ikusi eta aztertu ahal izateko. Aukera bat: zer eta nola hobetu erabaki (ikasleek beraiek), praktikan jarri eta antzezlan berrirori egitea; bigarrena ere grabatu egingo dugu, biak konparatu ahal izateko eta hobekuntzez jabetzeko. Hona hemen egindako lana ebaluatzeko kontuan izan ditzaketen irizpide batzuk:

	BAI / EZ	ZER HOBETU
▪ Istorioa/esketxa ondo ulertu da?		
▪ Ondo entzun da? Pertsonaiek ondo, argi, ahoskatu dute?		
▪ Pertsonaien karakterizazioa egokia izan da?		
▪ Jantziak aproposak izan dira?		
▪ Pertsonaiak ondo mugitu al dira eszenatokian zehar?		
▪ Elkarrizketek naturalak eman dute?		
▪ Gustatu zait?		

Beste aukera bat: antzezlan bakarra egitea guztien artean, gustuko antzerki-testu bat aukeratuta (ikus [teatro-testuak](#). Adibidez: [Irakasle gaiztoak](#)). Kontuan izan behar da antzezlan publikoaren aurrean aurkezteko moduan prestatzeko denbora asko eta koordinazio-lan handia behar dela (irakasleak antzerki-zuzendari lanak egin ditzake).



- *"Sormena lagun"*. Irratsaioak egingo dituzte ikasleek, beraiek aukeratutako gaien inguruan (adibidez: zaletasunak, gertaera misterioitsuak, sare sozialak, pertsonaia bitxiak...). Talde txikietan (2-3 lagun) 5-10 minutu bitarteko saioak prestatuko dituzte.

1. Dokumentatu. Zeri buruz hitz egin nahi dugu? Informazioa bilatu! Nolakoak izaten dira irratsaioak? Ereduak bilatu eta entzun!
2. Sormena landu. Kontatu nahi dugunari forma ematerakoan, irudimena erabili. Originaltasuna bilatu.
3. Egitura erabaki (irradi-esataria, elkarrizketatua, tertuliakideak... nola erabili eta noiz...).
4. Gidoia idatzi (zer esango duten gutxi gorabehera). Elkarrizketak egiten badituzte, bi aukera daude: benetako pertsonak elkarrizketatzea (adibidez, herriko pertsona bat) edo elkarrizketatuak pertsonaiak izatea, fikziozkoak (adibidez, "gaur Superheroi bat elkarrizketatuko dugu").
5. Entsegatu! Probak egin (ahotsa, erritmoa, tonua, isiluneak... nahi duten giroa sortzeko).
6. Grabatu! (musika zuzenean sar daiteke edo bestela ondoren, edizio-programaren bat erabilita).
7. Partekatu: egindako lana ikaskideei erakutsi, azalpen labur bat emanda (irratsaioa egiteko prozesuari buruz).



- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Maria Doloresen garaian ez zegoen telebistarik, baina orain bai. Telebista-programa laburrak (5-10 minutu) prestatuko dituzte ikasleek, sare sozialetan zabaltzeko. Kazetari bihurtuko dira: elkarrizketatzaile. Binaka egiteko jarduera izan daiteke: ikasle bat elkarrizketatzailea izango litzateke eta bestea kameralaria. Elkarrizketatua, berriz, antzerki munduko pertsona bat, ahal dela

emakumezkoa. Proposatzen ditugunak hauexek dira: aktoreak, antzerki-zuzendariak, antzerkiaren historian adituak, ipuin-kontalariak eta pailazoak.

Elkarrizketatuak herrikoak edo eskualdekoak badira hobeto, gertutasunarengatik. Hitzordua lotu, eta galderak prestatu ondoren (galdera orokorrak guztien artean presta ditzakete, eta gero elkarrizketatuaren arabera egokitu; informatu elkarrizketatuaren ibilbideaz!), elkarrizketa bidez grabatzea proposatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)).

Adibide gisa, ikus Txantxiku Ikastolako ikasleek Goiena telebistan [Iker Galartzari egindako elkarrizketa](#). Antzeko zerbait egin dezakegu, baina modu xumeagoan, eskura ditugun baliabideekin (eskuko telefonoa erabiliz gero, ez grabatu bertikalean! Horizontalean beti); adibidez, Jakintza ikastolako ikasleek egiten duten gisara: [Elena Iruretari egindako elkarrizketa](#). Beste aukera bat: elkarrizketatzailea irudian ez agertzea (ahotsa bakarrik entzun daiteke edo galderak idatziz agertu bideoan. Adib.: [Ramon Agirre](#)).



Euskal Jakintza ikastetxeko bi ikaslek Elena Irureta aktorea elkarrizketatu zuten.

Hona hemen jarraibide posible batzuk:

1. Taldetxo bakoitzak pertsona bat elkarrizketatuko du.
2. Ondoren, pasarte onena aukeratu, eta gutxieneko edizioa egingo du (moztu).
3. Bideoa ikaskideei erakutsi (ahozko aurkezpen txiki bat eginez: nor elkarrizketatu duten, zergatik, prozesua nolakoa izan den eta zer den jaso duten interesgarriena eta zergatik).

Ondoren, hainbat lanketa egin ditzakete grabazioarekin, hedabideen jarduna ezagutzeko eta lantzeko (ikasle taldetxo bakoitzak desberdina egin dezake):

- Bideo-erreportaje labur bat prestatu, grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsiko diegu, adibideak emanez). Bideo-erreportajea sarean zintzilikatu.
- Elkarrizketa idatziz jarri, egunkari digital edo blog baterako (titulua, azpititulua, sarrera, galde-erantzunak, argazkia, azgazki-oina... Adibide gisa: [Ainhoa Larrañagari elkarrizketa](#)). Sarean ipini.
- Irratsaio baterako erreportajea/elkarrizketa gertatu, elkarrizketako audioa erabilita. Sarrera prestatu (aurkezpena) eta grabatu; musika ere erabil dezakegu. Gertuko irratiren batera bidali edo sare sozialetan zabaldu.

Aukera bat: grabazioak [Ahotsak.eus](#) artxibora bideratzea gero (adibiderako, ikus: [Donostiako ikastetxea](#) eta [Lekarozko institutua](#)).

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: aurkezpena, ikus-entzunezkoa, antzezpena... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da.

10. *Gaia*: Sehaska-kantak (Ahozko literatura)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/sehaska-kantak>

The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. The main navigation bar includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The page title is 'Sehaska-kantak'. Below the title, there is a video player showing an elderly woman and a young girl. A green arrow points to the video player. To the right of the video player, there is a metadata overlay with the following information:

- Mailak: DBH, LH, HH
- Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak: Euskara eta literatura
- Gaiak: Abestiak
- 0 puntu 5 izarreko maximotik
- 0 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

1. Haur-kantak izango ditugu hizpide, bereziki sehaska-kantak, aurre-ezagutzak aktibatzen. Gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Zer nolako kantak gustatzen zaizkizue? Zer estiloko musika eta taldeak?
- Ezagutzen duzue euskarazko kanta tradizionalik? Zer haur-kanta dakizkizue? Eta zer sehaska-kanta? Noiz eta nola ikasiak?
- Zein dira zuen haurtzaroko abestiak? (Memoria emozionala)

Gelan aipatu diren haur-kanta batzuk kanta ditzakegu (abestia ezaguna baldin bada, letra Interneten bila dezakegu guztiok batera kantatu ahal izateko).

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, naturako elementuei erreferentzia egiten zaie abesti askotan: *billotsa* (bildotsa, arkumea), *amilitxa* (amilotsa txori bat da), *papar gorridun txoritxo* (txantxangorria izan daiteke)...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Ezagutzen al zenituzten entzun ditugun sehaska-kantak? Gustatzen zaizkizue?
- Adinekoak kantuan entzuteak zer sentipen eragiten dizuete? Zer nolako harremana duzue zuen aitona-amonekin?
- Kanta horiek entzunda, gogoratu al duzue beste kantarik?
- Egon al da abestien eta jakintzen transmisiorik zuen familietan (gurasoen, aitona-amonen, senideen... bitartez)? Oroitzapenik ekartzen al dizuete?

Betiko kanta-jolasen transmisioa bideoa ikus dezakegu, eta umetako kanta eta jolasak gogoratu (ikus proposamenak ere, gai horretan sakondu nahi izanez gero).

Guztion artean bideoko 3-4 abesti aukeratu ditzakegu, gustukoenak. Letra inprimatu (ikus "Testua" atala), eta guztiok batera kanta ditzakegu.

3. **Jolasa.** Euskarazko kanta tradizional ezagunak txistu-doinuan kantatuko ditugu, letrak abestu gabe. Batek txistuka kantatuko du eta gainerakoek abestia zein den asmatu beharko dute; txandaka egin daiteke, aldiko batek txistu eginda Adibiderako: *Maritxu nora zoaz, Boga boga...*



Gela laupabost taldetan banatuta egin daiteke jolasa, eta 10-15 minutuko tartea eskaini lanketari.

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkoko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Za zea elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, ahozko ondarearen biltzaile. Elkarrizketatzaile bihurtu, eta herriko kantak jasoko dituzte (haur-kantak eta sehaska-kantak bereziki, baina besteak baztertu gabe), adinekoei elkarrizketak eginez. Talde txikietan banatu (2-3 ikasle), eta talde bakoitzak pertsona bat elkarrizketatuko du, abestiak jasotzeko. Galdetegia guztien artean presta dezakete gelan. Hona hemen galdetegia osatzeko kontuan har ditzaketen gai batzuk:

Ume-kantak

- Lotarako kantak: "Txikitxo polit hori", "Nere maitea, nere polita", "Binbili Bonbolo", "Kukua eta amilotsa", "Haurtxo txikia", "Nere maite polita", "Lotxu eginda"...
- Umeak negar egiten duenean eta min hartzean kantatzen direnak: "Txilin txilin maña", "Miña-miña kura miña"...
- Erritmikoak (altzoan, korroan...): "Arre-arre Mandako", "Andra Joxepa tronpetan", "Aitak amari gona gorria ekarri", "Bat, bi, hiru, lau..."
- Esku-jolasak: "Txalo Pintxalo", "Arrautzaren ipuina", "Lehenengotxu hori"...

Kanta-jolasak

- Txingoka/sokasaltoan ibiltzekoak, biribilean jarrita egitekoak, esku-jokoak...

Jaiekin eta erlijioarekin lotutakoak

- Gabonetakoak: “Urte barri barri”, “Erregenetakoa”, “Trakatran trakatran hiru errege”, “Gabon-gabonete”
- San Juanetakoak, San Nikolas...
- Elizako kantak

Bertsoak

- Bertsolarienak eta herrikoiak (egile ezagunik ez dutenak)

Eguneroko lanekin lotutakoak

- Arto zuritzean, ardi-zain zebiltzala... kantatzen zituztenak

Oharra: Kanten testuingurua jasotzea ere garrantzitsua da: abesti bakoitza noiz, non eta nola ikasi zuten eta norekin kantatzen zuten.



Elkarrizketa bideoan grabatzea gomendatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)), gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere. Ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra, adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.), bideoa erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko.

Ondoren, lanketarekin jarraitzeko, aukera batzuk:

✓ Grabazio guztietako kanta politenekin ikus-entzunezkoa(k) prestatzea, sare sozialen bidez ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie). Posible da gero grabazioak Ahotsak.eus artxibora bideratzea (adibiderako, ikus Lekarozko institutoko ikasleek egindako grabazioak).


✓ Bideoen erakustaldia egin daiteke ikastetxean eta sare sozialen bidez ere zabaldu.

✓ Ume-kanta tradizionalen bilduma osatu ostean, ikasleek abestiak kantatu eta grabazio berri bat egin dezakete musikatua (horretarako, musika-tresnak jotzen dakiten ikasleak beharko lirateke).

- *"Sormena lagur"*. Musikak eta abestiek sormenerako aukera asko ematen dituzte. Kantak sortzea izango da erronka, eta helburu nagusia ondo pasatzea. 2-3 laguneko taldetxoak osa daitezke, sormen-prozesua kolektiboa izan dadin. Pauso posible batzuk:

1. Bideoko doinuren bat edo bertso-doinuren bat aukeratu
2. Letra aldatu (osorik edo hitz solteak; adibidez: *Ikusi nuenian nik zure begia / iruditu zitzaidan izartxo argia*). Naturako elementuak, metaforak, hitz-jokoak eta baliabide literarioak erabili. Gaia librea izango da: ateratzen dena (ez dauka sehaska-kanta izan beharrik).
3. Abesti berria barneratu/ikasi.
4. Ikaskideekin partekatu: kantatu.
5. Iritzi-trukea egin agertu diren gaiei eta baliabideei buruz (errepikapena, metaforak...).

- **Testigartza bila".** Euskarazko haur-kantak ezagutuko ditugu, eta kanta horiek aztertu (edukia eta forma). Horretarako, informazio-bilaketa egingo dugu, eta ondoren aukeraketa. 2-3 laguneko taldeetan egin daiteke.



5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: kanta, ikus-entzunezkoa, aurkezpena... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: ahozkoaren ezaugarriak eta baliabideak.

11. *Gaia*: Nola kontatu ipuin bat? (Ahozko literatura)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/nola-kontatu-ipuin-bat>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there is a navigation bar with 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Nola kontatu ipuin bat?'. Below the heading, there is a short text introduction. A video player is embedded, showing a woman speaking. To the right of the video player is a metadata table with the following information:

Mailak:	DBH
Proiektuak:	EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Euskara, Ipuinak, Antzerkia
	0 puntu 5 izarreko maximitik
	0 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu: kontalaritzari buruzkoa da ikusiko dugun bideoa. Aurre-ezagutzak aktibatzeke, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Beti gaude kontatzen, nahiz eta ez garen konturatzen. Trebeak zarete gauzak kontatzen?
- Zer da kontalaritza (kontatzearen artea)? Gustatzen al zaizue txiste eta anekdotak kontatzea? Badakizue arreta erakartzen? Barre eginarazten?
- Ipuinzaleak zarete? Zer ipuin dakizkizue? Kontatu!
- Zer ezaugarri dituzte ipuinek? (Definizioa)

Ipuina narrazio mota bat da, fikziozkoa. Ikus ahozko testu-generoak (Jean-Michel Adam, 1987).

Ipuina edo istorio laburra: irudimenak sortutako kontakizuna, bereziki alegiazkoa (baina ez beti), denbora tarte batean eta toki batean pertsonaia bati/batzuei gertatutako ekintzak kontatzen dituena.

- Nola kontatu ondo ipuin/istorio bat?
- Zer izan behar dugu kontuan? (Ahots-tonua, erritmoa, gorputz-adierazpena...). Zerrenda osatu!
- Zertaz hitz egitea gustatzen zaizue (gustuko gaiak)?
- Ikasi al daiteke istorioak/ipuinak ondo kontatzen ala kontalariak berezko dohaína izan behar du?

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleen arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, Amelik bere euskalkian (nafarreraz) esandakoak: *arrunt* (oso), *gan* (joan), *erran* (esan), *aunditz* (asko), *aise pendiatiago* (askoz pendienteago), *bertzea* (bestea)...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari etekin guztia ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Gustatu al zaizue bideoa? Ondo azaltzen al dute istorioak nola kontatu? Zerbait falta al da?
- Inoiz egon al zarete helduentzako ipuin-saioren batean? Ezagutzen zenituzten bideoan agertu diren bi kontalaria eta aktorea?
- Nabari da bideoko kontalariek ondo pasatzen dutela kontatzen. Garrantzitsua da egiten duzunarekin disfrutatzea (sentitzea, sentiarazteko)?
- Esan dituzten gauza guztietatik, zer iruditzen zaizue egiteko zailena? Zergatik?
- Ipuinak buruz ez ikastea, "testutik urruntzea", inportantea dela diote. Baduzue ohiturarik horretarako?
- Hitzei egundoko garrantzia ematen diegu. Alabaina, hitzak komunikazioaren ehuneko 30 inguru omen dira (gainerakoa, gorputz-adierazpena). Asko ala gutxi iruditzen zaizue?

3. Nahiz eta batzuetan muga lausoa izan (era guztietako antzezlanak daudelako), interesgarria gerta dakiguke bereizketa egitea: kontalaritza vs antzerkia. Kontalaritzan:

- Narratzailea zu zeu zara, ez pertsonaia bat: ez duzu antzeztu behar
- Inprobisaziorako aukera handiagoa duzu: istorioa publikoaren, lekuaren eta egoeraren arabera alda dezakezu
- Ez duzu ezer behar (atreztorik, mozorrorik... eszenatokirik ere ez)

Ipuin beraren bi aldaera ikusiko ditugu, *Hontzaren ipuinaren* bi adibide:

- Joxe Mari Karrerere
- Amelire



Hau da ipuinaren jatorrizko bertsioa, [Aramaion jaso](#) Ahotsak.eus proiekturako.

- Eman iritzia jatorrizko ipuinari eta kontalarien bi bertsioei buruz
- Konparatu bi bertsioak: musikarekin ala gabe nahiago?

Bi bertsioak berriz ikusi, oraingoan darabiltzaten kontaketa-estrategiei erreparatuz (binaka jarrita egin daiteke, bikote bakoitzak kontalari bat aukeratuta):

Tonua		
Erritmoa		
Pertsonaien izaera	<ul style="list-style-type: none"> · Ahotsa · Keinuak 	
Hizkuntza-baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> · Onomatopeiak · Esamoldeak · Formulak · Errepikapenak · Exajerazioa 	
Kontalariaren gorputz-adierazpena	<ul style="list-style-type: none"> · Keinuak · Begiradak · Espazioaren erabilera 	

Nahi izanez gero, ipuinaren egitura eta edukia ere landu ditzakegu (ipuinak sortzeko baliagarria gerta dakieke):

Lekua eta denbora	
Pertsonaia(k)	
Egitura: hasiera-gertaerak-bukaera. Arazoak, ekintzak eta konponbideak	
Denbora: orainaldia ala lehenaldia? Ordena: kronologikoa ala saltoak denboran?	
Narratzailea: 1. pertsonan ala 3. pertsonan? Orojakilea, protagonista ala lekukoa?	
Ekintzen narrazioa, azalpenak, deskribapenak eta elkarrizketak identifikatu	

4. **Kontaketa-laborategia.** Bideoan aipatu dituzten kontalaritza-estrategiak lantzeko, esperimentu batzuk egingo ditugu: esaldi eta testu laburrekin jolastuko dugu, talde txikietan jarrita (4-5 lagun):

- 1. Tonua:** “Gaur amonaren etxera noa” esaldia esan, ahotsa aldatuz: otsoa izanda, umea izanda, triste, pozik, gogaituta, haserre, misteriotsu... bururatzen zaizkien aukera guztiak erabilia, txandaka.
- 2. Pertsonaien izaera:** Ahotsa eta keinuak. Aurkezpen txiki bat egin. Adib.: “Otsoa naiz eta jan egingo zaitut!”. Pertsonaiak aldatzen joan: gaiztoa, eroa, inuxentea, lotsatia, bihurria, lotia, erretxiña, alaia, tristea, kexatia...

3. **Espazioa:** "Ikusi, hor/han dago!" eta "Badator, badator..." esaldiak erabili. Egoera: iratxo bat, erraldoi bat, txori bat, mamu bat, erle bat... guregana gerturatzen ari da.
4. **Inprobisazioa:** Taldeko pertsona bakoitzak hitz bat esango du, eta 4-5 hitzak paper batean idatziko dituzte. Guztien artean istorio txiki bat asmatuko dute, 4 hitz horiek erabilia. Bat-batean egitekoa, istorioa idatzi gabe. Aukera bat: gero gelakideei kontatzea.

5. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek aukeratu dezakete edo ordezkoko beste ekoizpenen bat proposatu.

- **"Jolastex".** Jolas bat egingo dugu, gorputz-adierazpenaren garrantziaz jabetzeko. 4-5 laguneko taldeetan banatuta egingo dugu. Hitzen ordez, *bala-bala hizkuntza* erabiliko dugu (hitz egin beharrean *bala-bala* esatean datza). Zakutxo edo poltsa batean sentipenekin lotutako hainbat hitz sartuko ditugu, papertxoetan idatzita: *harridura, beldurra, tristura, barregura, etsipena, nazka, haserrea, poza, jakin-mina...*



Talde bakoitzak bere papertxoak izango ditu (talde guztiek berdinak), eta taldekideak bertatik paper bana ateratzen joango dira, ondokoei erakutsi gabe. Hala, taldekide bakoitzak *bala-bala* hizkeran bere kontaketa egin beharko du, besteek hitza asma dezaten (adibidez, *tristura* baldin bada: aurpegi tristea jarriko du, tonua baxua izango da eta erritmoa motela; hasperen egin dezake eta baita negar ere; eskuekin aurpegia estali, burua makurtu...). Jolas honen helburua, ondo pasatzeaz gainera, gorputz-adierazpenaren eta hitzezkoak ez diren baliabideen garrantziaz ohartzea da.

Ondo legoke ariketa grabatzea, gero ikasleek beren buruak ikusi ahal izateko.

- **"Bestearen azalean".** Mikro-ipuinak erabiliko ditugu langai gisa, eta bi lanketa sakon egingo ditugu mikro-ipuin horiekin.
 1. Ozenki irakurtzea: irakurketa antzetzua
 2. Ipuin-kontaketa

Bi molde ezberdin dira, eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Jarduera honen helburua biak lantzea da, eta bi moldeen ezaugarriez jabetzea. Izan ere, literatura eta ahozkoatasuna askotan ez datoz bat: ipuin batzuk irakurtzeko aproposagoak dira kontatzeko baino.

Hasteko, ikasleak binaka ipini eta bikote bakoitzak gustuko mikro-ipuin bat aukeratuko du (posible da beraiek asmatua izatea ere). Adibiderako, mikro-ipuin hau erabil dezakegu (mikroipuinak.eus webgunetik hartua):

AMAIERA

Boligrafoa neke itxurarekin gerturatu zait.

—Ezin dut gehiago! —ziurtatu dit berehala—. Agortuta nago!

—Ni ere bai —onartu diot.

—Bi urte daramatzat zure ipuinak idazten —gaineratu du—, eta laburrak izan arren jada ez zait tintarik gelditzen.

Kexua espero nuen, ezer ez baita betirako. Nik ere ideiak agortu ditudalakoan nago, baina hala ere, azken ahalegin bat eskatu diot:

—Lagundu ipuinak zenbatzen.

Halaxe egin dugu. Banan-bana zenbatu ditugu ipuin guztiak 99ra iritsi arte.

—Ehun ipuin idazteko erronka jarri nion nire buruari —esan diot orduan boligrafoari—. Gai ikusten al zara azken ahalegina egiteko?

—Zuri zer iruditzen? —erantzun dit harro, nire eskura salto eginez.

Pentsakor gelditu naiz une batez, azken ipuina izango denaren gaia erabakitzekeo.

Berehala ohartu naiz, ordea, ez dela oso erabaki zaila, eta boligrafoaren tinta-hondarrak astinduz azken ipuinaren titulua idatzi dut: AMAIERA

1. **Mikroipuina ozenki irakurriko dugu.** Horretarako, Pako Eizagirreraren azalpenak kontuan izan ditzakegu, aditua baita lan horretan (Aittu.eus webgunearen sortzailea da): [Testua ezagutu eta barneratu](#) (00:30-01:40)

Aukeratutako testua aztertu, eta ikasle bakoitzak zer zati irakurriko duen erabakitakoan, tonoa eta erritmoa erabakiko dute, probak eginez: zer tonotan irakurri (umorezkoa, serioa, lasaia...), pertsonaien ahotsak nolakoak izango diren, non egin geldialdiak, zer hitz nabarmendu...

Testua barneratuta dutenean (markatu egin dezakete, nahi badute):

1. Ozenki irakurriko dute ikaskideen aurrean. Ahotsak grabatu (bideoan ere graba daiteke. Adibiderako, ikus: Txirri, Mirri eta Txiribiton oporretan).
2. Sentsazioaren berri emango dute: Gustura sentitu zara? Eroso, deseroso? Urduri, lasai? Disfrutatzen, bukatzeko irrikitan? Beldurrik piztu zaizu (gaizki egitekoa, erridukulua egitekoa...)?
3. Gustura geratu ez badira, hobeto prestatu, eta berriz irakurri eta graba dezakete (adibidez, bakarrik egonda).
4. Bi aukera posible:
 - Audio-ipuina egitea: ahotsari musika eta soinuak gehitzea (edizio-programaren bat erabiliz).
 - Bideo-ipuina egitea: ipuina bideo bihurtzea, marrazkiak/irudiak, soinuak eta musika ipinita (edizio-programaren bat erabiliz). Adibiderako ikus Aittu.eus webguneko ipuinak.
5. Emaitza ikaskideekin partekatu, eta sare sozialen bidez ere bai.

2. **Mikro-ipuina kontatzeko garaia** da orain! Irakurtzea eta kontatzea ez dira gauza bera. Desberdintasun nagusiak:

-Publikoaren aurrean zaude: zein da hartzailea? Ez da gauza bera 3 urteko umeei ala helduei kontatu. Ikus Doña Karmenen ipuina.

-Gorputz-adierazpena: ahotsa bezain inportantea da, edo gehiago! Begiradak, keinuak, espazioaren erabilera...

-Ez duzu paperik behar: ez zara testuan oinarrituko. Istorioaren eskema ezagutzea da garrantzitsuena.

Aurreko adibidera joko dugu, *Amaiera* izeneko mikro-ipuina (101 or.):

- Ahoz kontatzeko idatzita al dago?
- Zer dago sobran? Zer moldatuko zenuke?

Moldaketa posible bat:

Ez dakizue zer gertatu zaidan! Gaur boligrafoak ez dit ba boikota egin? Bai, boligrafo honek (*poltsikoan izan dezake, agerian, eta seinalatu*). Ipuin bat idazteko hartu dut eta (*boligrafoa eskuan hartu; beste eskuan paperak izan ditzake*):

-Ezin dut gehiago! Agortuta nago! (*boligrafoaren ahotsa eta kontalariarena diferenteak izango dira: adibidez, boligrafoak baxu eta astiro hitz egin dezake, kostata, nekatuta dagoelako*)

Agortuta? Ai ene... (*publikoari begira*)

-Puff... Ni ere bai (*neke keinuren bat egin: burua makurtu, putz egin...*)

-Bi urte daramatzat zure ipuinak idazten, eta, laburrak izan arren, jada ez zait tintarik gelditzen. (*boligrafoari begira*)

Ez da harrizkoa... (*publikoari begira*) Ehun ipuin idazteko erronka jarri nion nire buruari! (*erronkaren handitasuna nabarmentzeko, 'ehun' hitza indartu*) Kexua espero nuen, bai, ezer ez baita betirako... Nik ere ideiak agortu ditudalakoan nago, baina hala ere, azken ahalegin bat eskatuko diot:

-Lagundu ipuinak zenbatzen, faborez (*boligrafoa begien parean ipini eta hari hitz egiten, "errukitu nitaz" keinuarekin*).

Halaxe egin dugu (*boligrafoarekin paperak zenbatzeko keinua egin*). Bat, bi, hiru... hamaika, hamabi... Banan-banan zenbatu ditugu ipuin guztiak 99ra iritsi arte. 99! Aiba! Bakarra falta da ehunerako!

-Gai ikusten al zara azken ahalegina egiteko? (*ilusio-aurpegiarekin, boligrafoari*)

-Zuri zer iruditzen? (*boligrafoaren ahotsa aldatu egingo da: indartsua da orain; gora eta behera mugituko du, saltoka ari balitz bezala*)

Ikusten duzue? Papparra puztu zaio! Bai, hori da nahi nuen jarrera! (*pozik*)

(*Pentsakor geldituko da*) Jo, baina zeri buruz idatzi dezaket? Azken ipuina da... Badakit! (*boligrafoaren tinta-hondarrak astinduz, letra batzuk idatziko ditu paper batean, eta gero publikoari erakutsi, pozik*): AMAIERA

Eskema posible bat. Buruan izan behar ditugun ideiak, ipuina kontatu ahal izateko (kontatzerakoan, hitzak berez aterako dira, eta berdin du ez badira testuko berak!).

Adibidez:


Boligrafoa kexuka: agortuta

2 urte lanean: 100 ipuin idazteko erronka

Zenbatzen lagundu! 99 ipuin: 1 falta!

Azken ahalegina

Pauso posibleak:

- 
1. *Ikasle bikote bakoitzak bere mikro-ipuina moldatuko du: kontatzeko bertsiot bat egin.*
 2. *Ipuinaren eskema egingo dute: ideia nagusiak atera*
 3. *Kontaketa prestatu. Binaka presta dezakete, elkarri laguntzeko, baina gero bakarka kontatuko dute. Izan ere, pertsona bakoitzak bere erara kontatzen du, bere estilora, bere hitzekin eta keinuekin. Hori du polita ipuin-kontalaritzak. Aurrez landutakoak kontuan izango dituzte:*
 - Tonua eta erritmoa: umorezkoa, tristea, misteriozkoa... Zein da hartzailea?
 - Erritmoa: bizia, motela, aldakorra, isiluneak...
 - Pertsonaien izaera: ahotsak, keinuak
 - Hizkuntza-baliabideak: onomatopeiak, esamoldeak, erregistroak...
 - Gorputz-adierazpena: keinuak, begiradak, mugimendua, espazioaren erabilera, arnasa...
 4. *Ipuin-kontaketa egin, ikaskideen aurrean. Bideoan grabatu.*
 5. *Ipuin-kontaketa publikoari zabaldu. Hiru aukera:*
 - Grabazioa editatu eta sare sozialetan zabaldu.
 - Beste gela batera joan, ipuinak kontatzera. Iritzi-trukea egin.
 - Mikroipuin-kontaketa maratonia antolatu, egun batean, ikastetxeko areto batean.

- *"Sormena lagun"*. Ipuinak/istorioak asmatzea, gero kontatzeko. Horixe izango da erronka. Ipuina norberak sortutakoa denean, barrurago sentitzen dugu, eta sentimendu gehiagorekin kontatu ohi dugu. Hasteko, hauxe da ikasleei galde diezaiekeguna:

- Zer kontatu nahi duzu? Zer iruditzen zaizu interesgarria?
- Zer entzungo zenuke edo entzuten duzu gustura? Nolako istorioak gustatzen zaizkizu?

Bidea errazteko, bi proposamen ditugu:

A aukera. Aurpegiak eta keinuak ikusita, istorio bat asmatzea. Karrere eta Ameli ipuin-kontalarien fotogramak erabiliko ditugu. Ikasle bakoitzak bietako bat aukeratu dezake:





Zortzi fotograma horiek izango dira ipuinaren bizkar-hezurra. Eskema klasikoa erabil dezakegu:

- **Hasiera:** pertsonaia batzuk, leku bat eta egoera bat deskribatu
- **Korapiloa:** arazo bat, gertaera batzuk azaldu
- **Bukaera:** istorioa ixteko modu bat (ez dauka amaiera alaia izan beharrik)

Pausoz pauso:

- *Istoria pentsatu, eta zenbaki bakoitzaren ondoan gertatzen dena idatzi, esaldi gutxitan*
- *Istoria gelakideekin partekatu: fotograma bakoitzean zer jarri duzun azald*
- *Istoria kontatu, paperik erabili gabe, ateratzen diren hitzekin (berdin du istorioaren zatiren bat ahaztuta/aldatuta ere). Aurretik landutakoak kontuan izan (tonua, erritmoa, espazioa, keinuak, begiradak...).*

B aukera: Ipuin ezagunak aldatzea, neurri batean egitura nagusia mantenduta. Adibidez, Txanogorritxo makarra bat da (ez du amonarenera joan nahi), otsoa ez da gaiztoa (amonaren etxera laguntzen dio) eta amona ez dago etxean (oporretara joan da).

Ipuina prestatu eta kontatu. Aurretik landutakoak kontuan izan (tonua, erritmoa, espazioa, keinuak, begiradak...).


- *"Hitzen arrastoak"*. Hizkuntza-baliabideak oso inportanteak dira kontatzeko garaian. Euskara jator eta aberatsa erabiltzeak kolorea ematen dio kontakizunari.

Gure aitona-amonek, esaterako, euskara oso aberatsa dute. Ikus bideo hau, eta hitz egiteko moduari erreparatu (besteak beste, darabiltzaten onomatopeiak apuntatu): *lpuinak eta txisteak* (proposamen pedagogikoak ere baditu bideoak).

Onomatopeiak aldatu egiten dira hizkuntza batetik bestera. Euskarazko onomatopeiak landuko ditugu. Hona hemen adibide batzuk:

Kolpea makilarekin (kaska!)	kolpea atean (dan-dan!)	jipoia (dinbi-danba)	
masailekoa (zapla)	erori (plaust)	pausoak (tipi-tapa)	zurrunga (zzzzz)
haginkada (drausk)	edan (dzanga-dzanga)	ura irakiten (bor-bor)	
zerbait puskatu (krask)	zerbait ireki (kliski-klaska)	leherketa (braun)	
uretan ibili (plisti-plasta, txipli-txapla)	tripa-hotsa (grrrrr)		
barre motak (gaiztoa, urduria, alaia, bihurria... jojojo, jijiji, jajaja, jejeje)			
zaldiaren trosta (trakatan-trakatan)	euri erauntsia (zarra-zarra)		
trumoia, tximista, motor hotsa (burrun-burrun)	tantoak erori (tan-tan-tan)		
azkar (zirt-zart, ri-rau) kolpera agertu (braust)	balantzaka (binbili-bonbolo)		
ziburuan (dilin-dalan)	txakurra (zaun-zaun, txau-txau)		

-Taula osatu: onomatopeia gehiago ipini. Animalienak, adibidez.



-Ikasle bakoitzak egoera bat, istorio labur bat asmatuko du, onomatopeiak erabiltzeko: gutxienez 3 onomatopeia sartu. Adibidez:

Aurrekoan kalean zehar nindoan, *tipi-tapa, tipi-tapa*, lasai asko, eta bat-batean *krask...* zerbait zapaldu nuen! “Ai ama... zerbait apurtu dut”. Makurtu egin nintzen zer zen begiratzeko, eta ez nuen ezer ikusten... baina bat-batean *braust!* Igel berde bat agertu zen!

-Sortutako istorioa gelakideei kontatu. Kontatzeko garaian, aurrez landutakoak kontuan izan (begiradak, keinuak, espazioa...)!

6- Ekoizpena partekatzea. Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: ikus-entzunezkoa, ipuin-kontaketa, audio-ipuina... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: ahozkoaren ezaugarriak eta baliabideak.

12. *Gaia*: Elkarrizketa motak (Ahozko testu-generoak)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/elkarrizketa-motak>

ahotsak IKASGELAN

Sarrera Honi buruz **Materiala** Euskalkitegia

Elkarrizketa motak

Elkarrizketak egiteko hainbat bide daude, helburuaren arabera. Ahotsak.eus proiekturako bidez egindako hainbat elkarrizketaren adibideak batu ditugu bideo honetan.

Elkarrizketa motak

Ver más tarde Compartir

Mailak: DBH

Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan

Ikasgaiak: Euskara eta literatura

Gaia: Ahozko testu-generoak

0 puntu 5 izarreko maximoto

0 iritzi guztira

110

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu: elkarrizketa motak izango ditugu hizpide. Aurrezagutzak aktibatuko ditugu.

- Elkarrekin hitz egiteari elkarrizketa esaten diogu, baina hitz horrek adiera gehiago ditu. Zein?
- Ahozko testu-generoetan, non kokatuko zenukete elkarrizketa?
- Kazetaritzan, zer helbururekin egiten dira elkarrizketak? Zer jasotzeko? (Bizipen pertsonalak, iritzia, informazioa)

Elkarrizketa hitzak 3 adiera ditu: 1. Solasaldia, pertsonen arteko hizketaldi informala. 2. Kazetari/ikertzaile batek pertsona bati/batzuei egindako galdeketa eta erantzun sorta. 3. Negoziazioaren bitartez gatazkak gainditzeko modua.

Ahozko testu-generoak, Adam-en arabera (1987): narrazioa, deskribapena, argudioa, azalpena eta instrukzioa. Elkarrizketa narrazio mota bat izango litzateke. Hori bai, kontuan izan behar da ahozko jarduna genero-nahasketa dela (narrazioa, argudioak, deskribapenak, azalpenak... nahastu egiten dira).

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleen arreta erakartzen duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez: *sesioa* (borroka), *hankazpin izan* (zapalduta, menderatuta izan), *komerik* (gorabeherak), *majiña bat* (makina bat, ugari)... Jardun librean, Litzartzako lau emakumeek nokako formak darabiltzate: *hitzenan* (zinen), *aizan* (entzun ezazu), *gaittun/gatxin* (gara), *diñat* (dut), *niken* (nuke), *zientat* (diet), *bahunan* (bazen)...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko. Bideoa bigarren aldiz ikustean, aipatzen diren gaiak apuntatuko dituzte.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

- Zer pasarte gustatu zaizue gehien? Zerk piztu du zuen interesa? Zergatik? (Gaiak, kontatzeko modua, elkarrizketatua nor den...)
- Helburuaren arabera (bizipenak-biografia, iritzia edo informazioa jasotzea), lortzen diren erantzunak/emaitezak diferenteak al dira?
- Datu biografikoak jasotzeko bi adibide datoz bideoan: 1. Galdera-erantzun laburrak eta 2. Bere burua aurkezteko eskatzea. Zein gustatzen zaizue gehiago? Zer alde daude? (Batean elkarrizketatzailearen ahotsa kendu egin daiteke, bestean ez...)


- Jardun gidatua eta librea (kazetariaren esku-hartze txikiagoarekin): emaitzari begira, zer diferentzia ikusten dituzue (erregistro aldetik, adibidez)?
- Elkarrizketatuak asko direnean, mahaingurua ere deitzen zaio. Kopuruak nola eragiten du elkarrizketan (bat, bi, lau pertsona izan)? Geroa aldatu egiten al da?
- Zer elkarrizketa mota egingo zenukete gustura? Nor elkarrizketatuko zenukete?

3. Bideoan agertu diren gaiei buruz hitz egin dezakegu (ikasleei interesgarriena iruditzen zaiena): kultura aldatetekin lotutako anekdotak, garapen pertsonala hezkuntzan, euskarazko antzerkiaren historia, emakumearen egoera lehen, kanta tradizionalak, bideoan agertzen diren euskalkiak/erregistroak... Adibidez: Lizartzako emakumeek diotena aztertu dezakegu eta iritzi-trukea egin.

Horrez gainera, elkarrizketen adibide gehiago ikustea aberasgarria gerta daiteke. Ahotsak.eus webgunean elkarrizketa interesgarri gehiago bilatu ditzakete (ikus [Gazte Gara Gazte](#) proiektukoak ere). Talde txikietan jarrita, gustukoak aukeratu eta ondoren partekatu.

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek aukeratu dezakete edo ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu.
- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Kazetari lanetan jardungo dute ikasleek. Elkarrizketa bat egitea izango da helburua. 2-3 laguneko taldetxoetan egin daiteke.





- ✓ Nor/nortzuk elkarrizketatu? Pertsona bakarra ala gehiago (mahaingurua)? Adibidez, surfa gustatzen zaionak surflari bat elkarrizketa dezake. Gai zehatz bat interesatzen zaionak gai horri buruzko bi ikuspegi diferente batu ditzake, 2-3 pertsona elkartuta.
- ✓ Zer jaso: biografia-bizipenak, iritzia edo informazioa? Posible da denetatik jasotzea ere. Elkarrizketaren helburua(k) argi izanda, emaitza hobeak lortzen dira.

Nor/nortzuk elkarrizketatu erabakitakoan, hurrengo pausoa hitzordua lotzea izango da. Baiezkoa lortzean, galdetegia prestatu: galderen zerrenda. Inprobisazioari tarte bat uztea ere garrantzitsua da: elkarrizketan bertan galdera berriak sor daitezke, elkarrizketatuak kontaktzen duenaren arabera.

Elkarrizketa bideoan grabatzea proposatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)). Ondoren, hainbat lanketa egin daitezke grabazio horrekin:

1. Bideo-erreportaje labur bat prestatu grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsiko diegu, adibideak emanez). Bideo-erreportajea sarean zintzilikatu.
2. Elkarrizketa idatziz jarri, egunkari digital edo blog baterako (titulua, azpтитulua, sarrera, galde-erantzunak, argazkia, azgazki-oina... Bi aukera: elkarrizketa (galdera-erantzunak sartuta) eta erreportajea (elkarrizketan jasotako esaldiak zeharka sartzen dira). Adibiderako, ikus Jakintza ikastolako ikasleek egiten dutena: [Ruper Ordorikari egindako elkarrizketa](#).

Ondo legoke grabazioak [Ahotsak.eus](#)-era bideratzea, ahozko ondarearen artxibora (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).

Proposamen hau 2. mailarako da aproposagoa. 1. mailan, elkarrizketak beraien artean egin ditzakete ikasleek, datu biografikoak eta bizipenak jasotzeko. Bi erataria egin daiteke: galdera-erantzun laburrak edo bere burua aurkezteko eskatzea. Ondoren, horrekin lanketa egin daiteke (adibidez, ikus-entzunezko labur bat).

Egindako lana gelakideei aurkeztea eta azalpenak ematea izango litzateke azken pausoa.

- *"Sormena lagur"*. Literaturara joko dugu. Elkarrizketetan oinarrituta, mikroipuina sortuko ditugu. Ez daukate pertsonen arteko elkarrizketak izan beharrik; objektuak, animaliak eta naturako elementuak ere izan daitezke. Ereduak emango dizkiegu eta irudimena erabiltzera bultzatuko ditugu ikasleak. 2. mailarako aproposagoa.

Sortutakoarekin mikroipuinen irakurketa ozena egin dezakete. Horretarako, Pako Eizagirreraren azalpenak kontuan izan ditzakegu, aditua baita lan horretan (Aittu.eus webgunearen sortzailea da): [Testua ezagutu eta barneratu](#) (00:30-01:40). Ikasle bakoitzak bere mikropuinerako tonoa eta erritmoa erabakiko du, probak eginez: zer tonotan irakurri (umorezkoa, serioa, lasaia...), pertsonaien ahotsak nolakoak izango diren, non egin geldialdiak, zer hitz nabarmendu...

Testua barneratuta dutenean (markatu egin dezakete, nahi badute), ozen irakurriko dute ikaskideen aurrean. Ahotsak grabatu (bideoan ere graba daiteke. Adibiderako, ikus: [Txirri, Mirri eta Txiribiton oporretan](#)).



Elgoibarko Ikastolako hiru ikasle ipuin baten irakurketa ozena egiten.

- *"Sormena lagur"*. Beste aukera bat antzerki-testua idaztea izan daiteke; izan ere, elkarrizketek antzerkian pisu handia izaten dute. Ikasleek esketx laburrak (5 minutu bitartekoak) sor ditzakete taldeka (2-3 lagun). Adibiderako, ikus antzerki-testu batzuk.

Jarraibide posible batzuk:

1. Gai bat aukeratu (adibidez: egoera deserosoak/barregarriak)
2. Egoera bat pentsatu (adibidez: amonak rock talde bat sortu nahi du)
3. Pertsonaiak zehaztu (adina, izaera, jarrera eta janzkera)
4. Gidoia idatzi (lekuak, elkarrizketak eta ekintzak)
5. Gidoia ikasi eta entsegatu (erabiliko diren objektuak eta atrezzoak aukeratu, eta mugimenduak/keinuak zehazten joan)
6. Ikaskideen aurrean antzeztu


Antzerki-esketxak bidez grabatzea proposatzen dugu, gero ikusi eta aztertu ahal izateko. Aukera bat: zer eta nola hobetu erabaki (ikasleek beraiek), praktikan jarri eta antzezlan berrir egitea; bigarrena ere grabatu egingo dugu, biak konparatu ahal izateko eta hobekuntzez jabetzeko. Hona hemen egindako lana ebaluatzeko kontuan izan ditzaketen irizpide batzuk:

	BAI / EZ	ZER HOBETU
Istoria/esketxa ondo ulertu da (gidoia)?		
Ondo entzun da? Pertsonaiek ondo, argi, ahoskatu dute?		
Pertsonaien karakterizazioa (keinuak, jantziak, mugimenduak) egokia izan da?		
Elkarrizketek naturalak eman dute?		
Gustatu zait?		

- *"Ika-mika"*. Eztabaidetan elkarrizketa da oinarria. Gai bat aukeratu (adibidez, bideoan agertu den "Emakumearen egoera atzo eta gaur" horretatik tiraka: "Badago berdintasunik gaur egun?"), eta horri buruz hitz egingo dute, talde txikietan jarrita. Nork bere iritzia defendatzeko argudioak eta azalpenak emateaz

gainera, besteen iritzia ulertu eta errespetatzea eta malgutasuna erakustea izango da helburua.

Hasi aurretik, eztabaidatzeko garaian kontuan hartu beharreko irizpideak aletu ditzakegu (adibidez, baliabideak).



Ondo legoke eztabaidak bideoan grabatzea, gero guztiek batera ikusi eta baloratu ahal izateko (eduki aldetik ez ezik, baita ahozko komunikazioaren ikuspegitik ere): ikasleek beraiek erabaki dezatela zer eta nola hobetu dezaketen. Aurre-testu bezala balio dezakete, hurrengo eztabaida egiten dutenean biak konparatu ahal izateko.

5. **Ekoizpena partekatzea.** Ekoizpena dena delakoa izanda ere, ikasleek beti ahozko aurkezpena/azalpena/kontaketa egitea proposatzen dugu, ahozkoikasuna lantzeko, eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusi eta aztertu ahal izateko).

ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Proposamen pedagogiko gehienak gelan landuko dira, eta espazioa antolatzeko orduan gertuko giroa sortzen saiatuko gara. Talde-lana sustatuko dugu, eta ikasleen autonomiari garrantzia emango diogu. Espazioa talde-lanerako era egokian antolatuko da betiere (talde txikiak edo handiak diren, horren arabera). Ikasle guztiek parte hartzeko aukera bera dutela eta espazioaren antolaketa ez dela horretarako oztopo ziurtatuko da. Espazioari dagokionez, aintzat hartuko da irakaslearen eta ikasleen arteko harremana ere, irakaslea fisikoki ikasleen gainetik ez jartzeko.

Lanketak hala eskatzen duenean (ikasleek euren esperientzia pertsonalak kontatzeko, adibidez), gela modu berezian girotuko dugu: mahaiak eta aulkiak albo batera eraman, irakaslea zein ikasleak lurrian eseri, argiztapena zaindu (argi motela erabili)... Kontuan izan behar dugu sutondoan egiten zen transmisioa ikasgelara eramatea izango dela helburua, eta horretarako giro aproposa sortzea garrantzitsua dela. Testuinguru egokia sortzea, alegia. Ikasleak ez dira epaituak sentitu behar, hitz egiteko eta entzuteko gogoia izan behar dute. Eroso sentitu behar dira, etxean bezala.

Ikasleek euren kabuz informazioa lortzeko edo ekoizpenak prestatzeko, egokia izan daiteke IKTrako baliabideak dituen gela edo liburutegia erabiltzea. Bestalde, ikastetxetik kanpo informazioa biltzea ere bultzatuko da, gertuko errealitatea ezagutzeko: etxean, kalean... Ahozkotasunean oinarritutako proiektua den heinean, inguru hurbilean testigantzak biltzeari garrantzia emango zaio.

Komeni denean, jolaslekua edo kanpoko eremuren bat ere erabili daiteke lanketa batzuk egiteko (mugimendua eskatzen dutenak, jolas girokoak, leku zabalagoa izateko).



DENBORALIZAZIOA

Irakasleak erabakiko du zenbat denbora eskaini lanketari. Izan ere, irakasleak erabakiko du zein jarduera egingo dituen ikasleekin, eta zenbat denbora beharko duen horretarako.

Irakasleak jarduera guztiak bere egitea erabakitzen baldin badu, orduan proposamen pedagogikoak Sekuentzia Didaktiko bihur daitezke. Fitxa Pedagogiko guztiak ez dira berdinak, eta lanketarako denbora ere diferentea izan daiteke, baina jarduerak eta azken ekoizpenetako bat aurrera eramanez gero, lanketa 6-7 ordukoa izango dela aurreikusten dugu:

- 1. saioa.* Bideoa ikusi aurretik egingo diren jarduerak. Bideoa ikustea.
- 2. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo jarduera batzuk (1. saioan ere has gaitzke jarduerekin).
- 3. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo beste jarduera batzuk.
- 4. saioa.* Ikerketa, informazio bilketa, sormen-lana... azken ekoizpena gauzatzea (kasuan kasu, saio hau ikastetxetik kanpo egin daiteke).
- 5. saioa.* Ekoizpena partekatu eta grabatu.
- 6. saioa.* Ekoizpenaren grabazioak ikusi eta ebaluazioa egin.

Baliabide teknikoak

- IKTak. Eskola 2.0 egitasmoko baliabideak eskura izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta, ahal dela, ordenagailu eramangarriak ikasle guztientzat.
- Bideoak pantaila handian ikusiko dira. Pantaila, ordenagailua, Interneterako konexioa, proiektorea eta bozgorailuak beharko dira. Arazo teknikoak izanez gero, posible izango da ikasleek euren ordenagailu eramangarrietan ikustea bideoa. Aurikularrak beharko dituzte.
- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu. Konexioa izatea ezinbestekoa izango da.

- Informazioa jasotzeko eta materiala ekoizteko, tabletak, bideokamerak edo poltsikoko telefonoak, ordenagailuak, etab. erabiliko dira.
- Gaiak aurkezteko, dokumentuak sortzeko eta ekoizpenetarako sarean aurki ditzakegun aplikazio libreak erabiliko ditugu (Google Drive). Zenbaitetan, bideoak eta ekoizpenak partekatzeko, proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailua beharko dira.

Materialaren egileak

Ikasmaterial hau Badihardugu Euskara Elkarreak sortu du, www.ahotsak.eus proiektua oinarri hartuta.

- **IDOIA ETXEBERRIA ELORZA.** Edukien diseinuaz eta garapenez arduratu da. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Donostian, Kazetaritza Leioan eta Itzulpengintza Masterra Gasteizen. 4. Hizkuntza Eskakizuna dauka. 2009tik dabil Badihardugun lanean. Elkarreak Hezkuntza arloan dituen proiektuen eta Ikasgelan webgunearen arduraduna da, eta *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0). Kazetari eta iritzi-artikulugile moduan ere aritua da (Euskaldunon Egunkaria, Berria, Goiena).
- **AINTZANE AGIRREBEÑA UBERA.** Proiektu honetan aholkulari pedagogikoaren ardura du. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen eta irakaskuntzarako gaitasun agiriaren jabe da. Badihardugu elkarteko koordinatzailea da eta Ahotsak proiektuaren sortzaileetako bat. Hainbat herritako hizkera jaso eta aztertu du, tartean, Eibar, Beasain, Zarautz eta Zumaia. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **HAIZEA ODRIA ESNAL.** Bideoen edizioaz arduratu da. Arte Ederretan lizentziatua, gehienbat ikusentzunezkoen munduan aritu da. Ekoiztetxe eta herri telebistetan bideo-editore, diseinatzaile eta kamerari gisa ibili da. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko bi ediziotan ere parte hartu du, bertako telebista eta web ofizialerako bideoak sortzen. Ahotsak.eus proiektuan bideo-editore eta elkarrizketatzaile moduan dihardu 2009tik. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **IRATI LIZEAGA ELIZALDE.** Edukien transkripzioekin eta proposamen pedagogikoekin lagundu du. Euskal Ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **JOSUNE ZABALA ALBERDI.** Aholkularitza eskatu diogu, ahozko-tasunari eta ahozko genero-testuei dagokienean bereziki. Euskal Filologian doktore da. EHU eta HUHEZIn irakasle, ikertzaile, koordinatzaile eta aholkulari moduan ibilia, eta baita Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoan ere. Ahozko testu-generoetan aditua. Hezkuntzan ahozko-tasuna lantzeko, ikasmateriala sortzen eta irakasleak trebatzen jardun du.

Bibliografia

- Amonarriz, Kike (2002). *Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran*. Ikastolen Elkartea: IX. Jardunaldi Pedagogikoak: 417-465.
- Amonarriz, Kike. (2012). *Txisteez euskaraz ez dute graziarik, Campusa 79 zk. 39.or.*
- Askoren artean (2013). *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritzak. Gasteiz.
- Barquín, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Emakunde. Gasteiz .
- Bassols, M. (2003). *Modelos textuales teoría y práctica*, Octaedro ediciones.
- Bronckart, J.P. (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Fundación infancia y aprendizaje. 2004, Madrid.
- De Pietro, J.-F. & Dolz, J. (1997). *L'oral comme texte: comment construire un objet enseignable? Education et recherches*.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1997). *Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona*.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral*. Paris, ESF.
- Dolz, J., Noverraz, M. & Schneuwly, B. (2001). *Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit. Notes méthodologiques* (vol. II, 3^e/4^e). Bruxelles, De Boeck.
- Dolz, Joaquim; Vilá, Montserrat (1997): *L'oral formal*, Articles.
- Dolz, J., Schneuwly (1997). *Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona. Textos de didáctica de la lengua y literatura*. 11, 77-98.
- Eizmendi, I. (2015). "Eragileen sarea osatzen. Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitera bideratutako eredu baten azalpena", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 94: 71-91.
- Esnaola, I. (2000). [Gazteak eta erregistro kolokiala](#), *HIK-HASI*, 49.
- Euskararen Aholku Batzordea (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritzak. Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritzak (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2007). *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Curriculumean*. 218. alearen gehigarria.
- Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila (1993). [Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen oinarritzko eskubideen gidaliburua](#). Emakunde, Gasteiz
- Erriondo L., Bilbao B., Garagorri X., Idiazabal I., Iztueta P (2003). *Euskal Dimentsioa Curriculumean. Oinarritzko irizpideak, norabideak eta lorbideak*. Euskal Eskola Publikoa Gaur bihar. Gasteiz.
- Garcia-Azkoaga, I.M. (2015). Ahozko euskara, ikerketarako unibertso bat, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*.

- García-Azkoaga, Ines. 2015. *Ahozko euskararen erabilera eta eskola. Zein ahozkotasan irakatsi?* <http://www.euskonews.com/0701zbk/gaia70103eu.html> Euskonews. Eusko Ikaskuntza.
- HEZIBERRI 2020: <http://www.hezkuntza.eigv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>
- Ibarra, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. N.U.P. Iruñea.
- Idiazabal, I. (1990), *Hizkuntzaren psicopedagogía. Testu motak*. Labayru Ikastegia. Bilbo.
- Idiazabal, I. eta Garcia-Azkoaga I.M.: *Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza*. Bilbao, EHU.
- Kagan, S. (1999). *Cooperative Learning. San Clemente: Resources for Teachers*.
- Medgyes, P. (2012). *Laughing Matters: Humour in the Language Classroom*. Cambridge: Handbooks for Language Teachers.
- Lledó, Eulalia (2008). *Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak*. Emakunde. Gasteiz .
- Pavón Amaia, Zuberogoitia Aitor (2011). *Leintz bailarako nerabeak eta ikus-entzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian*. Uztaro 78, 31-49 orr. Bilbo .
- Rincón, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkidetza-eredua egiteko qida. I tomoa* Emakunde. Gasteiz.
- Rincón, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak. II tomoa* Emakunde. Gasteiz.
- Rincón, Ana (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak*. Emakunde. Gasteiz.
- Sanchez Carrion, J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Lizarra.
- Soziolinguistika Klusterra (2011). *Hizkuntzen ahozko kale-erabilera. Euskal Herriko VI. neurketa*.
- Soziolinguistika Klusterra (2013). Arrue Proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabilerari buruzko datuak (LH4 eta DBH2) <http://www.soziolinguistika.org/es/arrue/2011txostena>.
- Zalbide, Mikel (2002). *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?*. Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Zuazo, Koldo (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Elkarlanean. Donostia.



Ikasmaterial honek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren onespena dauka.
2019/09/20